



Xosé Manuel Beiras,

BNGko diputatua:

“Nik Euskal Herria beti estimatu izan dut; gehiago esango dut: uste dut ulertu egin dudala, gogoko izan eta miretsi egin dudala”

BNGko Kontseilu Nagusiko lehendakaria da. Zuzenbidean lizentziatu ondoren, Parisen eta Londresen osatu zituen ikasketak. Zenbait unibertsitatetan eskolak eman ditu, eta Santiago de Compostelako Unibertsitateko katedraduna da. Gazte-gaztetan hasi zen politika arloan, hasieran klandestinitatean. Gaur egun BNGko diputatua da, eta berarekin hitz egiteko aukera izan dugu, hain zuzen ere hauteskundeak izan aurretik, erraz antzemango duzue. Oraintsu jaso du *Euskaldunen laguna* saria Beirasek, Euskal Herria bigarren aberritzat duen galiziar honek.

10. or.

Emakumeen aurkako erasoak: tratu txarrak

Adituen ustez, tratu txarren kontua aspaldikoa da. Lehen ere emakumezkoek pairatu izan dituzte erasoak, baina isilean gorde izan dituzte, arrazoi askorengatik: jendaurrean agertzeko lotsa, baliabide ekonomikorik eza, errepresaliak... Lanean hasteak askatasuna ekarri die emakumei eta, ondorioz, ez dute dagoeneko tratu txarrik isilean gorde nahi. Bestalde, erakundeak ere ari dira erabakiak hartzen horrelako egoerei aurre egiteko. Erreportaje honetan, batez ere honakoak aztertzen saiatu gara: alde batetik, gizonezkoen (k)oldarkeriaren zergatiak eta, bestetik, baliabideak, hau da, emakumeek zer baliabide duten horrelakoren bat gertatuz gero.

13. or.



Eztabaida: Abiadura Handiko Trena (AHT) Euskal Autonomia Erkidegoan. Beharrezkoa al da “Euskal Y”-a?

Pil-pilean dugun gai honi buruzko hainbat iritzi jaso nahi izan dugu. Batzuentzat ez dago zalantzarik, derrigorrezkoa da: gaur egungo trenbide-sareak oso zaharrak dira, ez gara atzean geratu behar...; beste batzuentzat, ordea, astakeria galanta da: jendeak ez du horren beharrik, interes ekonomiko eta politikoak dira nagusitzen direnak...; eta badira beste bide bat proposatzen dutenak ere: “Euskal U”-a.

20. or.

6

Idazkiak
Gonbitak idazteko gomendioak.

12

Lanean euskaraz
Dozena bat gomendio testua zuzentzeko.

22

Prestakuntza
Mobbing-a: definizioa eta mugak.

JAINKOAREN BILA

D. Lacroix

Zergatik aukeratuko ote ditu Jainkoak basamortuak bizileku? Zazpi egun garamatza area eta zulo artean eta inondik ez da agiri Deus City!!!! Hartuko gaituela uste al duzu??

Nola ez gaitu ba hartuko? Begira hor!! Jainkoaren hirian sartzen ari gara.

Edifiziorik haundiena Jainkoen administrazioarena da. Hau egonezina!!!

Kristau jainkoak 5. solairuan

Non da JAINKOA?

Aizu, barkatu solairu honetan al da Jainkoa?

Bai, hortxe bertan da, baina 7. eguna da eta 7.ean atsedean hartzen du beti. Asko sentitzen dut, eta hanka egin behar dut berandu nabil eta!!!

ZATOZ HOBE BIHAR

ZZZZZZ



PAPER
BIRZIKLATUA

Zuzendaritza:
Herri Arduralaritzaren Euskal
Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:
Joseba Lozano

**Diseinua, fotokonposizioa eta
inprimatzea:** Itxaropena S.A.

Marratzkiak: Concetta Probanza

Zenbaki honetako lankideak:
Jose Mari Arakama, Aintzane Arrieta,
Karlo del Olmo, David Elgea, Luis
Elizondo, Aingeru Epaltza, Josu
Erkoreka, Karmele Jaio, Joseba
Lozano, Luma, Ion Orzaiz, Nerea
Pikabea, Iñaki Piñuel, Josemari
Robles, Xabier Sánchez, Rosa Mari
Urrutia.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ
aldizkarian argiratutako arti-
kuluak berridatz daitezke, bai
osorik, bai zatika, baina arti-
kuluak nondik atera diren
aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ
aldizkariak ez ditu derrigorrez
bere egiten artikulu eta kola-
borazioetan agertzen diren
irritziak.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

ISSN: 1576-5563. **Legeko Gordailua:** BI-1141-93. **Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea
Donostia-San Sebastián 1. 01010 VITORIA-GASTEIZ. Tel. 945 01 76 00. /<http://www.ivap.org>

PERTSONAIA

Elena Irureta: “Oso zaila da Euskal Herrian antzerkia egitea”



**Euskara irakasteko tresna zen *Bai horixe* tele-
sailean izan zuen, lehenbizikoz, kamera baten
aurreran jartzeko aukera. Handik aurrera, zinema, telebista eta
antzerkian aritu da Elena Irureta aktorea. Hamar film baino gehiago-
tan hartu du parte: Iciar Bollainen *Te doy mis ojos*, *Flores de otro
mundo*, *Hola ¿Estás sola?*; Julio Medemen *La ardilla roja*, eta Juanma
Bajo Ulloaren *La madre muerta* eta *Airbag*-en, besteak beste. Ramon
Soroizek antzezten zuen lehendakariaren emaztea izan zen ETBko
Jaun eta jabe telesailean, eta, egun, Espainiako Poliziako uniforme-
a jantzi du Estatu mailako *Telecinco* kateko *El Comisario* telesailean.
Pozik dago egun duen lanaz, baina oso kexu azaldu da euskal akto-
reek, bereziki antzerki munduan, bizi duten egoera larriagatik.**

**Noiz konturatu zinen aktore izan nahi
zenuela?**

Egia esan, ez dakit oraindik konturatu naizen.
Gauza batek bestera eramaten zaitu. Ni gazte-
tan, Londresetik bueltatu nintzanean, lanik
gabe nengoen, eta Eusko Jaurlaritzak Donos-
tian ireki zuen *Antzerti* izeneko eskola.
Orduan, goizez, dentista baten kontsultan hasi
nintzen lanean, eta arratsaldean, antzerki esko-
lan. Bigarren urterako beka bana eman ziguten
hamabi ikasleri –sei neska eta sei mutil–, eta
geroztik, egun osoa igaro behar genuenez
eskolan, dentistarenean nuen lana utzi egin
nuen. Hori 1980. urte inguruan gertatu zen.
Hiru urte egin nituen eskolan. Gero, Aizpea
Goenaga eta biok hasi ginen HABEkoekin *Bai
horixe* euskarazko klaseak antzezten, eta ondo-
ren biok hasi ginen Txirri eta Mirri pailazoekin
lanean. Egia esan, ez dut inoiz pentsatu aktore
izatea, baina gauzak bata bestearen atzetik
datoz, eta begira, orain hemen nago.

**Nola hartu zuten gurasoek aktore lanetan
hastea?**

Aitari ez zion bat ere graziarik egin. Aktore
bezala lan egiten hasi nintzanean ez zitzaion
batere gustatu: batere ez. Amak gehiago
jarraitu izan du nire lana. Baina, etxean ez
dugu honetaz asko hitz egin.

**Orain Madrilen ari zara *El Comisario* tele-
sailean lanean.**

Bai, joan-etorrika ibiltzen naiz. Madrilen bi
egunetan grabatu eta segituan egiten dut alde
Zumaira. Han bi gau egin eta Madriler-
a berriz ere, hurrengo grabaketara arte. Nik
argi daukat ez dudala Madrilen geratu nahi.

**Aktoreen ezinbesteko promozio tresna al
da telebista?**

Lana da, besterik ez. Nik ez dut promozio
bezala ikusten, beste lan bat bezala baizik.

Honetaz bizi behar baduzu, edozer egin behar
duzu.

**Zinean Iciar Bollain, Julio Medem eta
beste hainbat zuzendariren agindupean
egin duzu lan. Orain arte zein zuzendari-
rekin moldatu zara hoberen?**

Ez dakit. Nik orain arte egin dudana oso gus-
tura egin dut. Lana daukadanean gustura egi-
ten dut beti, eta ondo konpontzen naiz bai
zuzendariekin, bai beste lankideekin. Azke-
nean denak gara pertsonak eta normala da
batzuekin beste batzuekin baino gusturago
egotea, baina denekin oso ondo ibili naiz.
Iciarrekin oso gustura egin dut lan, eta Julio
asko maite dut.

***El Comisario* amaitzean, zer lan gustatuko
litzazuke egitea? Zinea, antzerkia, beste
telesail bat?**

Berdin zait zer ateratzen den, baina egia da
antzerkirako gogo gutxi geratzen zaizula,
euskal antzerkiak bizi duen egoerak nekatu
egiten zaituelako. Azkenerako esaten duzu:
“Horrela ibili beharra ere, beti antzezlan-
a saldu ezinik...” Eta, azkenean, nazkatu egiten
zara. Oso zaila da Euskal Herrian antzerkia
egitea.

**Nola ikusten duzu aktoreen egoera Euskal
Herrian?**

Gaizki. Oso gaizki. Gero eta okerrago.
Antzerkian, duela hamabost urte orain baino
gehiago kobratzen genuen, eta gainera gero
eta lan gutxiago dago. Gaztea izan behar
duzu eta ilusio handia eduki lanbide honetan
aritzeko.

Karmele Jaio
Kazetaria

✉ **Guk zeukiau harrie!**

Igande gaua. Afaldu ondoren beste ezertarako gogorik ez eta ETB-1en pelikula dagoela ba... Mafia kontuak, tiroak, boxeoak, apostuak. Protagonistetako bat ijitoa dugu, betiere trapitxeoan eta apostu ez oso garbiak antolatzen dituen ijitoez osaturiko gaizkile-talde bateko burua, alegia. Eta orain dator onena: ijitoak direla adierazteko edo, itzultzaileek trikimailu biribila burutzen dute filma bikoiztean: gure adinekoek darabilten gipuzkera arrunt eta itxia jartzen dute ijitoen ahotan, ETBko lokutore, aurkezle eta berriemaile gipuzkoarrek sekula erabiltzen ez duten euskara-giputz fresko eta jator askoa. Gauza bitxia benetan Napparoko nahiz Lapurdiko lokutore eta aurkezleek euren euskalkietan mintzatzeko duten lizentzia kontutan hartuta. Pelikula berean, gainera, ijitoak ez diren gaizkileak batua darabilte eta momentu jakin batean ijito-giputzak eta gaizkile-EGAdunak elkarrekin ari direnean, azken hauek ez dutela tutik ententitzen esaten dute. Aluzinantea. Euskal-ijitoeke badute, edo bazuten behintzat, euren hizkera. Beraz utzi gipuzkera arrunt, itxi, sukaldekoa bakean, isil-isilik desagertuko da-eta: dagoeneko *atte, ebie, ude, basurea, hau dek abelerea, joango haiz mantsokatio, mila euro kuantu!*, *gorrak zate motillek!*, *zuek etzate iñoa-ko-mukok izango...*dioen ume edo gazte bakar bat ez dago, esateko. Eta zergatik ez ikasi hitz batzuk erromintxelaz: *kerá* (astoa), *kere* (etxea), *keru* (burua), *errumi* (gizona), *miruni* (emakumea), *txukela* (zakurra), *gasnia* (zaldia), *lakai* (apaiza)...

✉ **Zuzendari jauna:**

Jakingo duzunez, Estatuko lege batek aldatu egin du orain arte GOBERNU BATZORDEA (COMISIÓN DE GOBIERNO) delakoaren izena; aurrerantzean, gaztelaniaz, JUNTA DE GOBIERNO LOCAL izango da. Nik lan egiten dudan erakundeetan modu batean bataiatu nuen (ondo ala txarto) organo zahar berritua, baina lehengo egunean, EUDELetik mezu bat heldu zitzaigun esanez hemendik aurrera organo horren euskal izen ofiziala TOKIKO GOBERNU BATZARRA izango dela. Bi gogoeta egin nahiko nituzke izendapen berriaz: bata, BATZARRA hitzaz; eta bestea izendapen osoaz. Nik kezka bat dut: zergatik gaztelaniaz COMISIÓN zenean denok BATZORDE jarri eta, orain, batzordea izanda ere, BATZAR deitu? Gaztelaniaz JUNTA delako? Egia esan, batzar bat da, noski; baina ez udal-ordezkarri guztiena, eta, beraz, bada, uste dut –apal uste ere– egokiagoa dela BATZORDE deitzea. Eta bigarren gogoeta, sintagma osatzeko moduz egin nahi dut: gaztelaniazko adjektiboaren kokapenari begiratzen badiogu, “GOBIERNO” da “LOCAL” dena, ez JUNTA; eta, nire ustez, izendapen ofizialak nahasteko aukera ematen du. Hortaz, ez al litzateke zuzenago izango TOKI GOBERNUA esatea eta azpisintagma hori deklinabide-markarekin lotzea BATZAR edo BATZORDE hitzari (TOKI GOBERNUAREN BATZORDEA, adibidez)? Dena dela, besterik erabakitzen ez den bitartean, TOKIKO GOBERNU BATZARRA deituko diot, jakina. Ala, ... TOKIOKO GOBERNU BATZARRA?

Koldo Goitia Ormazabal
Ume mottue

Edorta España

JOXERRA INTERÍNEZ

BEHIN BEHINEKO FUNTZIONARIOA

interinez@mindless.com



Zuen iritziak, proposamenak, iradokizunak... bidaltzeko, idatz ezazue helbide honetara: webivap@ivap.es. Mezuarekin batera, izen-abizenak eta ENA adierazi beharko dituzue. Toki-arazorik izanez gero, ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak eskubide osoa izango du testuak laburtzeko.

Gazte, plan honekin erraztasunak izango dituzu



Gazteen bizi-kalitatea hobetzeko, euskal gizarte osoari zuzendutako plana abian da herri administrazioetan. Eusko Jaurlaritzak, gainerako herri-erakundeekin batera, II. *Gazte Plana* jarri zuen martxan 2002-2005 aldirako.

Gazteak gizarteratzeko bidean, integrazio eta emantzipazio ekimenak bultzatzen dira plan honetan; horretarako, informazioa hurbilago jartzen zaie gazteei. Ahalik eta esparru gehienetan eragina izateko asmoz, hainbat arlo jorratzen ditu *Gazte Plana*: lana eta prestakuntza, etxebizitza, hezkuntza, osasuna eta aisia.

Gazteria eta Gizarte Ekintza zuzendaritzak hainbat programa garatzen ditu; hona gazteei zuzendutako batzuk:

- ▶ **Gazte-txartela:** agiri europar honek abantailak eskaintzen dizkie gazteei kultura, kirola, aisia, bidaiak, musika eta ostatuetan, besteak beste; bai Euskadin, bai Estatuan, bai Europan.
- ▶ **Nazioarteko beste txartelak:** ikasleen, irakasleen, *Go-25* eta aterpekidetako nazioarteko txartelak dira. Azken txartel horrek adin guztietako jendearekin ematen dio aukera ostatu hartzeko, merke, modu desberdinean. Bost kontinenteetako 5.000tik gora aterpetxe erabil ditzake aterpekidetako txartelaren jabe denak.
- ▶ **Auzolandegiak:** Euskadiko eta mundu osoko 1.500 gazte lankidetzan jarduten dute kultur, ingurumen edo gizarte ondarearekin zerikusia duten gizarte-proiektuetan. Kulturen arteko harremanak eta auzolana sustatzea du helburu programa honek.
- ▶ **Gazte kooperanteak:** Garapen Lankidetzarako zuzendaritzak urtero antolatzen du *Euskal Gazteria Lankide* programa, hirugarren munduari laguntzeko. Guztira, 20 eta 30 urte arteko 100 gazte parte hartu ahal dute; hiru eta sei hilabete arteko programak izaten dira, eta gazteek bertatik bertara ezagutu dezakete beste herrialde batzuetako egoera.
- ▶ **Boluntarioentzako eta mugikortasunerako programak,** esaterako: *Gazteria* programa eta *Euro-Scola* kluba.



▶ Gazteentzako **informazioa** eta **zerbitzuak**.



- **Gazte Informazioa.** Gazteei informazioa emateko, Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta 60 udalek bulego sare hau osatzen dute. Hainbat eremutako informazioa eskaintzen da, hain zuzen ere, lana, ikasketak, bidaiak, aisialdia eta abar. Bulegoetan egin daitezke kontsultak, zuzenean zein Internet bidez, www.gazteinformazioa.net gunean sartuta.



- **Gazte Aukera.** Gazteekin zerikusia duena biltzen da www.gazteaukera.net helbidean. Atari honetan *Gazte Planaren* arloetako hainbat informazio eskaintzen da Internet bidez: Aisia, Lana eta Prestakuntza, Etxebizitza, Hezkuntza, Ekologia eta Ingurumena, Osasuna eta Gizarteak.

Informazioaz gain, zerbitzuak ere eskaintzen dira: nazioarteko txartelak eskuratzeko eskaerak eta auzolandegietan izena emateko aurreinskripzioak, esate baterako.

Gazte Aukerak badu gune apropos bat parte hartzeko eta elkar ezagutzeko; izan ere, han inkestak, txatak, foroak, iradokizunak, eta iragarki-taula aurkituko dituzu. Harpidetza-zerbitzuan izena emanez gero, posta-elektroniko zuzenean jaso daitezke azken berriak.

Gehiago jakin nahi baduzu, www.gazteaukera.net helbidean sartu besterik ez duzu. Iradokizunak bidaltzeko posta elektronikoa erabil dezakezu: gazteria@ej-gv.es. Murgildu zaitez gazte munduan!!!

Xabier Sánchez Robles
Gazteria eta Gizarte Ekintza zuzendaria

GONBITA

Idazki labur bat da; horren bidez, hartzaile jakin bat (izen-abizenekin) gonbidatu egiten dugu ekitaldi batera. Hartzailearekin dugun harremanak eta ekitaldiaren protokolo-mailak mugatzen dute idazkiaren tonua: formala, neutroa, lagunartekoa.

Gonbidatzeaz batera, ekitaldi baten berri ematen diogu hartzaileari:

- ▶ Zer ekitaldi mota den: erakusketa bat, liburu baten aurkezpena, urtebetetzeko ospakizuna, ezkontza...
- ▶ Tokia, eguna eta ordua (eta bestelako argibideak: hizlaria, aurkezlea...).
- ▶ Amaierako esaldia (adeitasunezkoa, lagunartekoa...), sinadura eta data (behar denean).



Argazki zaharren erakusketa

Gonbidaturik zaude argazki zaharren erakusketaren inauguraziora.

EGUNA: apirilaren 19a, astelehena

ORDUA: arratsaldeko 8ak

TOKIA: Udaletxeko Erakusketa Aretoa

Inaugurazio egunean gure artera bilduko zarelaokan, ondo izan!

Bixente Jaunarena Jaunbeltz
GASTEIZKO UDALEKO KULTUR ZINEGOTZIA

Gasteiz, 2004ko apirilaren 2a

Oiher Martinez de Irujo

eta

Zuzene Lauzurika

Gogobetez gonbidatzen zaituztegu gure ezkontzara: maiatzaren 15ean, arratsaldeko 8etan, Hondarribiko Eliza Nagusian.



Elizatik *Borda* jatetxera abiatuko gara, eta han koktela eta afaria izango ditugu.

Gure artean izango zaretelakoan,
Erantzun, mesedez: 699 478 771

Antton eta **Mila**

Ezkundu-nahiak ukitu gaitu; hortaz, maiatzaren 22an ezkonduko gara, eguerdi-eguerdian, Hernaniko Udaletxean. Jan-edatekoak eta dantza-ezaupideak *Bentaberi*-n egingo ditugu. Jakizue txoko bana gorde dugula zuentzat.

Agertzeko asmorik baduzue,
hona telefonoa: 656 078 098



URTEBETETZE-GONBITA

**Hilaren 8an, urteak egin nituen.
Hori ospatzeko, merienda goxoa
prestatuko dizuet.**

EGUNA: ostirala, maiatzaren 14a
ORDUA: arratsaldeko sak
TOKIA: Larrazken elkarte

**Zatoz!
Ederki pasatuko dugun-eta!**



Edurne Urkiola Bilbao
Euskara teknikaria
Gernikako Udala

GONBITA

Andre hori:

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak 2002ko *Atariko Probak* liburua argitaratu berri du. Liburu horretan hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko egiten diren hainbat azterketa-eredu bildu ditugu; interesgarria da, beraz, irakasleentzat, normalkuntzako teknikarientzat eta, oro har, euskara ikasten ari direnentzat.



Aurkezpena datorren astean egingo dugu, eta oso atsegin zait zu ekitaldira gonbidatzea.

EGUNA: 2004-05-21 (ostirala)
ORDUA: 12:30 (aurkezpenak 30 minutu-edo iraungo du)
TOKIA: Lakua 1eko bilera aretoa

Aurkezpenean elkar ikusiko dugulakoan, jaso ezazu nire agurrik beroena.

Jon Isasi Iruretagoiena
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde zuzendaria
IVAP

Vitoria-Gasteiz, 2004ko maiatzaren 12a

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde zuzendariak jarraian agertzen den hitzaldira gonbidatzen zaitu

FORU-LEGE ZIBILAK

Gonbita

Hizlariak **Carlos Etxebarria Lores**
IVAPeko Idazkari Nagusia
Rafael Irizar Baste
Deustuko Unibertsitateko irakaslea

Aztergaiak

- ✓ Uztailaren 1eko 3/1992 Legea, Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilar buruzkoa.
- ✓ Euskara eta foru-lege zibilak.

Tokia, eguna eta ordua Bilboko Euskalduna Jauregia
Maiatzaren 6a
Goizeko 10ak

Antolatzaileak IVAP
Herri Arduralaritzaren
Euskal Erakunde
Deustuko Unibertsitatea

Oh.: etortzekoa bazara, adierazi mesedez (tf.: 945 011111)



G o n b i t a

Jesús María de Leizaola ikerketa saria

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde zuzendariak, Jon Ugarte Abasolo jaunak, atsegin handiz gonbidatzen zaitu, **Jesús María de Leizaola ikerketa saria** emateko egingo dugun ekitaldira etortzera.

Ekitaldi hori maiatzaren 23an izango da, goizeko hamabietatik aurrera, Lakua 1eko Areto Nagusian (Donostia kalea 1, 01010 Gasteiz). Gure artean izango zarelaokan, agur.

Oh.: aurkezpena gonbit hau eraman behar duzu.

Jose Mari Arakama eta Rosa Mari Urrutia
HAEEko Administrazio Hizkeraren Atala



Mundua online

GipuzkoaEuskara.net gunea zabaldu du aldundiak

GipuzkoaEuskara.net webgunea otsailean jarri zuten martxan. Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiak sarean ipini duen leihoa da, eta bertan, Gipuzkoan euskarari buruz sortzen diren era guztietako albisteak, jarduerak eta laguntzak aurki daitezke, besteak beste.

Helbidea:

www.GipuzkoaEuskara.net

Luis Elizondo
luis-elizondo@ivap.es

TuMatXa

Zer da *TuMatXa*? Bada, itzulpen-memoriak web bidez kudeatzeko tresna bat. Tresna berri horren helburua itzultzaileen lana erraztea da; izan ere, itzulpen memoriak gero eta erabiliagoak dira itzultzaileen artean, baina memoria horiek konpartitzea ez da hain erraza. Eta, hain zuzen ere, hutsune hori betetzera dator *TuMatXa*: taldean, memoriak, terminologia eta itzulpenak elkartrukatzeko bidea ematen du. Eta garestia al da? Bada, ez: software librea da. Eta *CodeSyntax* enpresak sortu du.

Webgunea: www.tumatxa.com

Telekomunikazio hiztegia sarean

Euskaltel-ek eta *Elhuyar Fundazioa*-k elkarrekin prestatu dute euskarazko lehenengo telekomunikazio hiztegia. Helburu bikoitza du lan honek: alde batetik, produktuak eta zerbitzuak euskaraz merkaturatu ahal izatea, eta, bestetik, esparru honetan euskaraz lan egiten duten profesionalentzat lagungarri izatea. Landu diren alorrak honako hauek dira: sarea, telefonia, Internet, telebista, telekomunikazio-zerbitzuak, erakundeak, legea eta atal orokorra.

Kontsultetarako erabili helbide hau:

www.telekomunikaziohiztegia.org

Linguapax X

Hizkuntza aniztasuna, iraunkortasuna eta pakea: izen hori du *Linguapax*-ek koordinatuko duen Kongresuak. Hizkuntza arloko ikerlari eta adituek aztertuko dute munduko hizkuntzak nola gorde eta ordezkatzeko-prozesuak nola geldiarazi. Hizlarien artean honako hauek izango ditugu: David Crystal, Bernard Comrie, Juan Carlos Moreno, Suzanne Romaine, Albert Bastardas, Fernand de Varennes eta Miquel Siguan. Hitzaldiez gain, tailerrak ere izango dira, arlo hauek lantzeko: hizkuntza politikarako eredu emankorrak; hizkuntza biziberritzeko eta arautzeko izan diren esperientziak; soziologiari buruzko azterlanen balantzea, bide berriak eta paradigmak; araubidea eta hizkuntza eskubideak; hizkuntza aniztasuna gordetzeko agenteak... Maiatzaren 20tik 23ra bitartean egingo da Bartzelonako Nazioarteko Konbentzio Zentroan. Eta gaztelania, katalana, frantsesa eta ingelesa izango dira lan-hizkuntzak.

Izena emateko epeak: apirilaren 15a baino lehen emanez gero, 185 €; apirilaren 16etik maiatzaren 15era arte, 210 €; eta maiatzaren 16tik 23ra, 235 €. Informazio gehiagorako jo honako telefono honetara: +34 934 589 595.

Webguneak: www.barcelona2004.org

www.linguapax.org

Lazarragak XVI. mendean idatzitako eskuizkribua

Juan Perez Lazarragak XVI. mendean idatzitako eskuizkribu bat erosi du Gipuzkoako Foru Aldundiak Madrilgo liburu-denda batean. Eskuizkribuan genero ezberdinak biltzen dira: hasieran, artzain-eleberriak eta abenturazko prosa-lana; gero, amodiozko poemak eta *Azken Afaria*-ri buruzko bertso solteak. Eskuizkribuaren edukia Joseba Lakarra filologoak ikertu du; eta forma, Borja Aginagalde Eusko Jaurlaritzako Dokumentu ondarearen arduradunaren esku egon da.

Liburua denon eskura jarri dute Interneten:

www.gipuzkoa.net/lazarraga

Oskar Aranek Jokin Zaitegi saria eskuratu du

Aurten, Oskar Arana lankideak lortu du XVII. *Jokin Zaitegi* saria; horrela, bada, berak hartuko du John Maxwell Coetzee, 2003ko Nobel saridunaren nobela ospetsuena euskaraz idazteko ardura: *Desohorea*. Itzulpena irailerako aurkeztuko du, eta, Durangoko Azokarako prest izango da. Zorionak, Oskar!

ANDOLIN EGUZKITZA. ADIORIK EZ

Andolin Eguzkitza zendu da, baina euskaltzaleok beti izango dugu gogoan euskararen aldeko langile fina izan dena.

ERLOJUA

Zuzendariari bost bere menpekoak zer ordutan etortzen ziren. Bera beranduago ailegatzen zen beti eta orobat lehenago etxeratzen. Langile gehienak, ordea, sinetsiak zeuden halako tema bitxia zuela beren orduekin: hil bukaera guztietan ikus zezaketen, bere bulegoko leihatetik harata, bakoitzaren sar-ateren berri ematen zuten erloju-ko txartelen irakurketa arretatsuan.

Zurrunetik eta malgutik zuen Administrazio horretako ordutegiak: 7 h eta 20 minutu egunean, 8:00etatik 15:00etara nahitaez denendako bera, eta hogeitau minutu gehiago, hautara, aitzinetik, gibeletik edo bietatik. Bertzela erranda, 7:43an iristen zenak 15:07 arte gelditu behar, derrigor, eta berdin 7:59an txartela sartutakoak 15:19 arte. Hala egiten ez bazen, Funtzio Publikoan jakinen zuten alproja zentzatzten. Zuzendariari zegokionez, bere langileen gaineko informazio iturri paregabeak ziren neurrian baizik ez zitzaizkion interesatzen zorioneko txartelak. Juzkuak baieztatzeke edo ezeztatzeke ezezik, espekulazio berriei bidea emateko ere balio izaten zioten.

Zuzendariaren bulegoko leihate gardenei esker, besaulkitik mugitu gabe, ikusmiran zituen bere menpeko langile ia-ia guztiak: hogeita bi gizon-emakume, maila ezberdinetako funtzionario eta lan-kontratudunak. Beharrian hasi berriak nahiz erretirotik hurbil zeudenak; halako Administrazio serio batean lan egiteko egoki jantziak zein zarpailen gisara agertzen zirenak; partiduaren boto-emaile zintzoen itxurakoak eta aukera gorrotagarrien aldeko seguruak. Administrazio horretako atalen arduradun gehienek deus guti zekiten beren azpikoez, haien biziez, haien bizioez, lanera ekartzen zuten amets edo amesgaiztoez. Gure Zuzendariak, berriz, haien fitxa bana zeukan bere ordenagailuan eta hartara isurtzen zituen haien gaineko jakingarri guztiak. Batzuk datu hotzak ziren, plantilla organikotik, nominetatik edo haien baja- edo opor-orrietatik atereak. Bertze batzuk, berriz, zelata nekazinen fruitu ziren: nor norekin solas, nork norekin hamaiketako, nork nori irribarre eta nork nori mutur. Bere lana zen, gero, bere menpekoen keinu edo hitz bakoitzaren ifrentzua itzulikatzea, begiz oharteman ez zitekeenaren erranahi sakonaren bila. Lantokiko giza-mapa aldakorra marrazten zuen, goizero, bere ordenagailuaren pantailan.

Iñakiren eta Miriamen artekoari aspaldi ohartua zitzaion. Lehen behakoan, hagitz harreman profesionala: haien mahaiak elkarren ondoan ziren eta biei manatutako txostena landua, zorrotza eta zehatza izanzen zen, ezin bereizirik-eta non hasten zen bataren eta non bertzearen ekarpena. Gehiagorik ere bazen, ordea. Haien irriño konplizeak, haien arteko tarte laburra elkarrekin mintzatzerakoan, noizbait harra-patutako fereka antza... Alabaina zerri horiek ezkondurik zeuden! Bi seme-alaba zituen gizonak eta alaba bat emakumeak.

Hil hasiera batean etorri zitzaion aspaldian espero zuen baieztatpena: Miriamen eta Iñakiren erloju-txartelek ordu bera markatzen zuten egun-egunero. Sukartua bezala, aurreko hilabeteetako fitxak miatu zituen. Ergela halakoa! Nola ez zen, bada, lehenago ohartu? Sei hilabete zuten berdindurik Miriamen eta Iñakiren sarrera eta irteera orduak.

Bikotearen mugimendu guztien barrandan egon zen zenbait egunez. Ez zuen, hala ere, intimitate handiagorearen zantzurik atzeman haien portararen. Hamaiketakoaren tenorean segitu zien: Miriamek kafesnea eta entsaimada hartzen zituen, eta Iñakik, berriz, ebakia eta patata-tortilla. Horra ateratako informazio garbi bakarra.

Korapilota askatu behar zuen, nola edo hala, horretarako ahalegin berezia egin behar bazuen ere. Hurrengo astelehenean, 7:30etatik zegoen bere Zuzendaritzari aterpe ematen zion eraikinaren atariaren ondoan. Ez zuen gogoan noizdanik ez zen hain goiz jaikitzen. Miriam oinez etorri zen, bakarrik, 7:43an. Iñaki 7:57an jaitsi zen auto batetik, bolanteko emakumeari musu eman ondoan. Hamar minutu geroago, Zuzendariak erlojuaren azpiko fitxategitik erauzi zituen bien txartelak: 7:45 irakurri zuen Miriamenean; 7:45, Iñakirenean.

Zuzendaria bere bulegoan sartu zen eta, ohi ez bezala, pertsianak behehitu zituen. Gero, Iñaki Huarte Mangado eta Miriam Sucunza Azparren A mailako funtzionarioendako zigor eskaera idazten hasi zen, Funtzio Publikoarentzat.

Aingeru Epaltza
Idazlea





Xosé Manuel Beiras BNGko diputatua:

Euskal Herria oso sendoa da hartutako konpromisoetan; inoiz ere ez du hausten egindako ituna

BNGko Kontseilu Nagusiko lehendakaria. Zuzenbidean lizentziatu ondoren, Parisen eta Londresen osatu zituen ikasketak. Gaur egun, Santiagoko Unibertsitateko katedraduna da. Berarekin hitz egiteko aukera izan genuen martxoaren 14ko hauteskundeak izan baino lehen.

Alderdi Popularrak berriro gehiengo osoa lortuko balu, ikusten al diozu horri demokrazian eta autonomian inboluzioa ekartzeko arriskurik?

Inboluzioa ez da etorkizun hurbilean datorrela nabaritzen den arriskua; inboluzioa une honetan bertan gertatzen ari da, 2000. urtean gehiengo osoa lortu aurretik hasita gainera; hala ere, urte hartatik aurrera bizkortu egin da. Beraz, lehendik ari gara inboluzioa pairatzen. Nik maila bitan sailkatuko nuke inboluzio hori: alde batetik, konstituziogilea barik konstituzio-deseigilea da, zatiz zati Konstituzioa eraisten ari delako; eta, bestetik, egungo erregimen politikoa deskonposizio-prozesuan sartuta dagoelako. Guztiarekin, ez dakit prozesu horiek atzerabiderik duten edo ez, Historiak baino ez baitu esango hala denik.

Legezkotasunaren printzipioa, gaur egun, erabat hautsita dago; Espainiako Estatuko aginte legegileen eta aginte betearazleen jardunean hautsita dago zuzenbide-estatua. Gainera, –hasieran oso mozturuta egin bazen ere– eten gabe urratuz doa Konstituzioa, non eta aginte betearazleak, legegileak eta judizialak diharduten bezala jardunda hierarkia-ordena erabat irauli den, esandako aginteen arteko hierarkian erabateko nahasmendua sortu arte: betearazlea legegilearen gainetik, eta judiziala gero eta gehiago betearazlearen menpe. Burugabeberria hutsa da; zuzenbide-estatuaren oinarriak oldartzen ari dira. Adibide bat nahi bada, horra Kode Penalari egindako azken aldaketa, berriz ere delitu politikoa sartu dutelako ordenamendu juridikoan; lehenago ere frankismo garaian jasan genuen halakorik, eta demokraziarekin zerikusirik ez duten erregimenekek berezkoa dute, bai, delitu hori.

Zure ustez, zenbait buruzagi politikok esaten duten bezala, arriskuan ote dago Estatuaren koherentsia?

Bai, baina aznarismoa da estatuaren koherentsia eta gizartearen koherentsia apurtzen ari dena: gero eta leize sakonagoa zabaltzen ari da Espainiako herrien artean. Eskerrak horrek eragin gehiago duen politikoen artean herritarrengan baino.

ETAk Ernest Lluch hil zuenean, ni Bartzelonan nengoen, eta han milioi bat herritar katalan ikusi nituen elkarrizketa eskatzen, ez mendekurik. Han zen Gobernuako presidentea, baina entzungor egin zion herriaren aldarriari. Hala ere, PSOE bera salatu nahi dut, gai hauetan guztietan PPren bidaia-laguna bihurtu delako. Manifestazio hura egin zen egunean, sozialisten buruzagi guztiak, bai Kataluniakoak bai estatukoak, bertan ziren; baina, handik hamabost egunera PSOEek atxikipen-hitzarmen bat sinatu zuen, eta oker bidean Terrorismoaren aurkako Ituna deitu bazioten ere, benetan abertzaletasunaren aurkako ituna da; gero PPren uberan jarraitu du magistratura-ko itunarekin, finantzaketa autonomikoaren ereduarekin, eta autonomien gaineko itunarekin, eredu autonomikoa praktikan erabat itxia dela uste izateraino; hain zuzen Konstituzioa halako Koran, Talmud edo Biblia ukitu ezina bihurtu arte, nahiz eta inork praktikatu ez. Fundamentalismo horretan aurkitzen da PSOE bera ere. Ikuskizun bitxia eskaini digute azken aldian: Katalunian Maragall sozialista buru dela hiruko gobernuaren eratzan zen egunetan, Zapatero Donostian izan zen Basta Yak deitutako manifestazioan; eta manifestazio horretan, argi, ez zen Odon Elorza egon alkatea izan arren. Egoera hori ikusita, esatekoak esanda daude.

Alderdi Popularraren gobernuak Euskadiri buruz duen estrategia politikoa ondo bideratuta dagoela uste al duzu? Zeintzuk izan daitezke horren ondorioak? Zer aurpegiatuko zenieke euskal abertzaleei?

Espainiako gobernuaren estrategia ez da estrategia politikoa, ez; hauteskundeei begira jarritako estrategia demagogiko eta iruzurrez beterikoa da: estrategia eroa da, betidanik ezkutuan bizirik dauden espagnolismoaren akuilu zaharkituak erabiliz hautesleak alienazioan elikatu eta Espainian botoak ematen dizkiona. Mekanismoa bakarra da: fobia bat zabaltea, gorrotoa. Hasieran ETaren indarkeriaren aurkako fobia izan zen, baina gero euskal abertzaletasunaren aurkako gorroto bilakatu zen, eta bere nortasun eta autogobernuaren adierazpen politikoa ukatzera iritsi zen; egoera hori orokor bihurtuz, estaturik gabeko beste bi nazioetara hedatu zen: Katalunia eta Galiziara. Jokabide horren ondorio, alde batetik, inola ere konpondu gabe utzi da indarkeriaren arazoa, are gehiago, zolitu egin da; eta bestetik, euskal gizartean dagoen haustura larriago bilakatu da.

Inori ezer aurpegiatzekotan, gehien bat Batasunaren inguruari ekingo nioke, 98. urtean Lizarrako Akordioarekin eta ETaren menia mugagabearekin irekitako konpromisoa aurrera eramateko gai izan ez zelako. Jakina da Estatuko gobernuak izan zela hasieratik boikot egin zuena –bereziki Mayor Orejak, hain zuzen bake-bidearen aldeko ziren ETako kideak atxilotu zituenen–; baina ETak menia hautsi zuenean, Batasunak beharrezko zuen autonomia politikoa lortzeko gaitasuna erakutsi behar zuen.

Zein da Bartzelonako Adierazpenaren egoera? Ba al du zentzurik abertzaleen arteko strategi bateratu batek?

Inoiz baino zentzu gehiago. Bartzelonako Adierazpena epe ertainera egindako proiektu estrategiko bat da; eraginkortasunik gabeko adierazpen-agiri soil bat baino gehiago izan behar du. Ia lehenengo bi urteetan ondo jardun zuen, Espainiako Estatuan politikan kultura berri bat ezarri guran, elkarrizketaren eta aniztasunaren garrantzia indartu zelako eta Konstituzioa aztertu beharra eta agian aldatu beharra proposatzen zelako.

Mugimendu hori guztia moteldu eta gelditu egin zen, eta azkenean izozkailuan sartu zen, batez ere CIUK PPko gobernuarekin izandako harremanetatik sortutako egoeraren eraginez. Nire ustez, Kataluniako hauteskundeen ondoren bertan sortutako egoera berriak mendekotasun horietatik askatzen du CIU eta berriz suspertzeko giro berria zabaltzen du. Nolanahi ere, Bartzelonako Adierazpena beharrezkoa da, eta gehiago zabaltzea ere beharrezkoa litzateke; horretan EA eta ERC aipatzen ditut (hori ez da formalki planteatuta dagoen ezer, nik neuk emandako iritzia baizik)

Prestigen tragedia gertatu zenetik denbora nahikoa igaro eta gero, Galiziako gizartean, zure ustez, aurreko egoeraren eta ondorengo egoeraren artean ba al dago alderik?

Argi dago iraganaz eta geroaz hitz egin daitekeela gizarteari soil-soilik begiratzeko badiogu; baina ez, instituzio politikoei eta hauteskundeetako portaerei erreparatzeko badiogu. Izan ere, nola uler daiteke *Prestigen* kudeaketan Estatuko Gobernuaren izenean erantzukizun gehien izan zuena, Mariano Rajoy jauna, bera


Gobernurako lehendakari-gai izatea? Nola ulertu ekaineko udal-hauteskundeetan, %90 gerraren aurka agertzen ziren tokietan, PPK ia bat ere galerarik ez izatea, Estatu osoan puntu bakar bat galtzea? Nola uler daiteke PPK Bartzelonako inguru gorrian PSCren lepotik gora egitea? Galiziako udal-hauteskundeetan PPK 4 puntu eta udal oso garrantzitsuak galdu zituen. Baina, Galizia ezagutu egin behar da, hemen gertatu denaren diagnostia egiterakoan Muxiako emaitzak kontuan hartzeak balio ez duela jakiteko; *Costa da morte* jendez hustuta dago, biztanleria zahartuta dago, emigrazio-arazoekin, inguru

na harriatuta, hirugarren munduaren pareko, eta, jakina, egoera horretan erraz da jendea diruarekin erostea.

Espainiako Estatuan jasaten ari garen egoera eskizofrenikoa da, edo antzekoa, *Prestigen* hondamenak eta gerraren aurkako mobilizazioek udal-hauteskundeetan PPren porrotik ekarri ez dutela kontuan hartzen badugu. Hau da, herri-kontzientziaren adierazpenak, herritarrik eragileenen eta parte-hartzaileenen adierazpenak (gogoratu adierazpen horrek herritarren %90 bereganatu zuela Irakeko herria erasotzearen aurka), ez du islarik izan hauteskundeetako emaitzetan. Horrek guztiorrek adierazten du herritarrik pasiboan erabakitzen dituzten hauteskundeetako emaitzak. Nire iritziz, burugabekeria da ezbaian daudenean hauteskundeak erabaki behar izatea. Ordezkaritzazko sistema batek halako patologia nozitzen duenean, larria da gertatzen ari dena.

Zer sentitzen duzu Sabino Arana Fundazioak emanda “euskaldunen lagunari” Saria jaso izateagatik?

Naziotasun bikoitza eman didatela sentitzen dut: galiziarra eta euskalduna. Oso zorionsu eta oso harro nago. Nik Euskal Herria beti estimatu izan dut; gehiago esango dut: uste dut ulertu egin dudala, gogoko izan eta miretsi egin dudala. Euskaldunek tratuan duten zintzotasuna eta berotasuna gustatzen zaizkit, batez ere beren elkartasuna. Euskal Herria oso sendoa da hartutako konpromisoetan; inoiz ere ez du hausten egindako ituna, eta ikaragarri errespetatzen du itundutakoa bai pertsonen arteko harremanetan bai harreman kolektibo eta politikoetan ere.



Dozena bat gomendio testua zuzentzeko

Ez dago edabe magikorik egun batetik bestera zuzentzaile aditu bihurtzen gaituenik; gainera, horrek ez du, seguru asko, zertan gure helburua izan. Nolanahi ere, hona hemen gomendio batzuk idazkiak berrikusteko eta zuzentzeko. Eta batzuk diot, izan ere ez ditugu hemen sartuko komunikazioari, testuaren antolaketa, diseinuari eta horrelakoei buruz nork bere buruari dokumentua idazterakoan etengabe egin behar dizkion galderak: kontuan izan dut hartzailea? Edukiak hurrenkera logikoan aurkeztuta daude? Idazki erakargarria eta irakurterraza idatzi dut?...

1

Urrezko araua: oro har, testu batek ez du balio, lehen irakurraldian ulertzen ez bada, eta, beraz, berriro idatzi behar dugu. Beste modu batean esanda: idazki bat ulertzen ez bada, erruduna ez da irakurlea, idazlea baizik, izan ere ez gara gauza izan ideiak argi eta garbi aditzera emateko.

2

Idazki guztiek ez dute zuzenketa bera eskatzen: zenbat eta luzeagoa, korapilatsuagoa edo garrantzitsuagoa izan idazkia, orduan eta zorrotzagoa gure lana. Alde horretatik garbi dago ez dela gauza bera hiruzpalau lerroko ofizio bat begiztatzea edo mila-lagunek irakurriko duten liburu bat inprimategirako prestatzea.

3

Aukera izanez gero, testu bat idazten amaitu, eta zuzentzen hasi arte, tarte bat pasatzen uztea komeni da. Labetik atera berri den idazkia argia iruditzen zaigu gehienetan, ulergarria, ondo idatzia; hozten denean, berriz, zalantzak sortzen dira eta baita gaizki-ulertuak ere. Kontuan izan hau: zenbat eta tarte luzeagoa utzi testua amaitzen denetik zuzentzen hasten garen arte, orduan eta eraginkorragoa gure zuzenketa; ondo azalduta zirudiena, egunak pasatu ahala, ilun, aspergarri eta exkax bihurtzen zaigu.

4

Zuzentzaile ortografikoak izugarriko laguntza ematen digu azaleko zuzenketak egiteko orduan. Dena dela, ez zaitez gehiegi fida: batzuetan zuzenak diren hitzak zuzentzen dizkigu; beste batzuetan akats nabarmenak beren horretan uzten ditu; eta larriena: edukiak eta testuaren antolaketa ukitu ere ez ditu egiten.

5

Idazkia luzea bada, ona da (begientzat, behinik behin) inprimatzea eta pantailan ez, baizik eta paperean zuzentzea.

6

Irakurri testua boz goraz, askotan gertatzen baita “ikusi” ez dugun akats bat gerora “entzutea”.

7

Eutsi koherenziari zuzentzeko orduan. Erabaki baten alderdi on eta txarrak hausnartu ondoren erabakia hartzen bada, sendo gorde behar dugu testuan barrena, irizpideak behin eta berriro aldatu gabe.

8

Kontraesana ematen badu ere, begiek txikikerietara jotzen dute maiz, garrantzirik gabeko akats txikieta- ra, begi bistakoak izan beharko luketen okerretan erreparatu ere egin gabe. Gomendio bat: ez begirik kendu, ez izenburuei, ez tamaina handiko hitzei, ez zenbakiei, ez hilen izenei eta horrelakoei, hortxe ezkututzen baitira hanka-sarterik potoloenak.

9

Burutik behatzetarainoko zuzenketa egiteko astia dugunean, hau da, “lupazko” akatsen bila gabiltzanean, bada teknika interesgarri bat: testua zuzendu “ulertu” gabe, arreta ez galtzeko. Horretarako, hitzez hitz irakurri behar da; are gehiago: batzuek atzekoz aurrera irakurtzen dute.

10

Kontuz ibili zuzenketak garbira pasatzerakoan, ez dadila gerta paperean egindako lan ona itzulipurdika geratzea, zuzenketok ordenagailura eramaterakoan hanka sartu dugulako.

11

Betiere kontuan izan laguntzarik eraginkorrena beste pertsona batek emango dizula. Laguntzaile horrek irizpide berriekin egingo dio aurre idazkiari, zuk topatu ez dituzun akatsak aurkituko ditu, eta ideia berriak emango. Bigarren pertsona hori ondo aukeratzea garrantzitsua da: testuak jorrotutako gaian aditua den batek edukiari buruko iruzkinak egingo ditu; hizkuntza gaitasun ona daukanak idazkiaren hizkera eta estiloa hobetzeko gomendioak emango dizkigu; azkenik, gaiarekin zerikusirik ez duen lagun batek edo lagun-talde batek informazioa eman dezake gure idazkerak izan dezakeen harreraren inguruan (irakurgarritasuna, kontu ilunak, interesa...).

12

Azken oharra (eta ez garrantzi gutxiagokoa azkena izateagatik): une batetik aurrera, zuzenketaren zuzenketaz, nekatu egiten da zuzentzailea. Onar ezazu: ez dago testu perfekturik.

Joseba Lozano

HAEEko Administrazioako Hizkeraren arduraduna

Emakumeen aurkako erasoak: tratu txarrak

Emakumezkoek jasaten dituzten eraso eta tratu txarrek gero eta kezka handiagoa sortzen dute gizartean. Arazoa ez da atzo goizekoa; lehen ere, ederrak hartuko zituzten emakumeek etxean, baina isilean. Gaur egun, ordea, aukera eta bide gehiago dituzte emakumeek erasoak lau haizetara zabaltzeko. Horren adibide da azken urte hauetan Euskal Autonomia Erkidegoan, tratu txarrak direla-eta, jasotako salaketa kopurua ugari izana. Hala eta guztiz ere, asko gelditzen dira isilpean oraindik. *Fundación Biblioteca Josep Laporte* egindako ikerketa baten arabera, lau emakumetatik batek tratu txar fisiko edo psikologikoak jasaten ditu Espainiako estatuan, baina kasuen %10-30 soilik salatzen dira. Zergatik ez dira salatzen gainerakoak? Bada, besteak beste, mendekotasun ekonomiko edo psikologikoagatik, eta eskubideak –eta eskuragarri dauden baliabideak– ez ezagutzeagatik. Azken finean, biktimak errepresalien beldur dira; beraz, emakume horiek tratu txarrak salatzea nahi bada, derrigorrezkoa izango da emakumeak babesteko baliabideak zaintzea, indartzea.

Gizonezkoek zergatik jotzen duten argitzeko, sozializazioa eta gure gizarteak indarkeriarekin duen tolerantzia aztertu behar ditugu. Emakumeak eta gizonak balore eta estereotipo ezberdinen arabera sozializatzen dira, eta balore eta estereotipo horiek tratu txarrekin lotura zuzena duten zenbait alderdi baldintzatzen dituzte. Emakumeek eta gizonezkoek heziketa desberdina dute zenbait gairen inguruan: diruaren erabilera, sexu-harremanak, bikote-harremanak... Hortik datoz, hain zuzen ere, aukera berdintasunarekin eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lotutako arazo gehienak.

Emakumeentzako Babes-Agindua

Joan den urteko abuztuaren hasieratik indarrean dago *Etxean Tratu Txarrak pairatzen dituzten Emakumeentzako Babes-Agindua*. Biktimei arreta eskaintzeko neurriak azkartzen dituen figura juridiko berria da. Neurri berri horren helburua zera da: epaileak, segurtasun indarrak eta fiskalak elkarlanean aritzea. Horrela, guardiako instrukzio-epaileak erabaki penal eta zibilak hartu ahal izango ditu, eta emakumea 72 orduz babespean egoteko agindu dezake, bi aldeek esaten dutena entzun ondoren. Laguntza eskatu daiteke: epaitegi batean, polizia-etxean edota Ministerio Fiskalean.

Horrez gainera, hamar hilabetetan 300 euroko diru-laguntza jaso dezake emakumezkoak, baliabide ekonomiko urriak dituela frogatuz gero. Erasoak salatu ostean, emakumeak esku hutsik ez egotea da helburua.

Neurri berria abian jarri eta lehenbiziko hilabeteetan, Estatu osoan, 1.300 bat salaketa jaso ziren, horietatik gehienak emakumezkoek jarrita.

Erakundeen Arteko Akordioa

Erakundeen Arteko Akordioaren bidez, babesa bermatzen zaie biktimei zenbait arlotan: osasunean, justizian, gizartean... Hainbat erakundek parte hartzen dute akordio horretan: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Eusko Jaurlaritza, EAEko hiru foru aldundiak, Eudel, Fiskaltza, Abokatzuzaren Euskal Kontseilua eta Sendagileen Euskal Kontseilua.

Akordio horren emaitzetako bat *Emakumeentzako Segurtasun Plana* da. Plan hori 2002aren amaieran sortu zen, eta, guztira, 17 neurri biltzen ditu, 4 esku-hartze arlotan biltzen direnak: biktimei informazioa ematea, babes poliziala, babesa epaitze prozesuan, eta gizarte babesa.



Hauexek dira hartutako neurrietako batzuk:

- Biktimei informazioa eman, hiru bide erabiliz: informazio-kanpaina bereziak; udaleko gizarte-zerbitzueta-ko informazioa eta aholkularitza; eta EAE osoan jarduten duten doako lege-orientaziorako zerbitzuak.
- Biktima babestu: erasotzaileari biktimarengandik urruntzeko agindua ematen zaio.
- Fax zerbaki bat eman, tratu txarrak izan eta ahoz komunikatzeko arazoak dituzten biktimek aukera izan dezaten SOS-DEIAK-ekin berehalakoan harremanetan jartzeko.
- Abokatu bat eskaini, edozein ordutan laguntzeko prest egongo dena. Izan ere, tratu txarrak jasaten dituzten biktimen %20k baino ez du izaten abokatua epaiketetan; eta kasu horietan, epai gehienak (%62 inguru) erasotzaileen aldekoak izaten dira.
- Baliabideak eskaini, etxebizitza bat errazago eskuratzeko.
- Lan merkatuan sartzen lagundu.
- Justiziarekin lotutako erakundeen arteko koordinazioa bultzatu, epaiketak azkartzeko.



Javier Madina

PSIKOLOGO KLINIKOA

“Gizonak onartu behar du berak duela arazoa”

Ia 15 urte bete ditu dagoeneko Javierrek gizonetzko erasotzaileekin lanean. Gai horretan espezializatuta dago: lehendabizi, Psikologia ikasketak egin zituen; eta, bikote-terapia eta sexu-terapiari buruzko master bat egin ondoren, AEBetara joan zen, hain zuzen ere, ikasitakoa San Franciscoko *Center for special problems* zentroan praktikan jartzera. Bi urte egin zituen gizonetzkoentzako zentro hartan. Handik itzultzean zerbitzu bat sortu zuen Donostiako epaitegian. Gizonetzkoek beren emazte edo neskalagunak zergatik jotzen dituzten eta hori nola tratatzen den galdetu diogu.

Zeintzuk dira tratamendu eske datorren gizonetzkoaren ezaugarriak?

Ez dago ezaugarri jakinik. Normalean, nortasun ahuleko pertsonak izan ohi dira, depresiorako joera dutenak, emozionalki oso makalak. Pertsona batek indarkeria erabiltzen duenean, kontrola jarri nahi izaten du; egoerak eskuetatik ihes egiten diola ikusten du; uste du bide horri jarraituz, bere bikotekidea gertuago edukiko duela. Sentimenduak adierazteko zailtasunak dituzten pertsonak izan ohi dira, auto-estima baxua dutenak. Kosta egiten zaie beren ideiak eta iritziak defendatzea.

Non dago jotzeko joera horren jatorria?

Askotan aipatzen da txikitik indarkeria bizi izanak eragina duela. Baina, nire esperientziak ez du hori baieztatzen. Batzuek haurtzaro ona izan bai, baina gurasoen arteko rolak oso bereizita ikusi dituzte: ama mendekoa, eta aita autoritarioa. Orduan beren bikotekideekin ere horrela izan behar duela iruditzen zaie. Frustraziora ohi-tuta ez dauden pertsonak izan ohi dira, ez dute bazterketa edo porrot bati aurre egiteko gaitasunik. Dena galzera doazela ikusten dutenean, indarkeria erabiltzen dute. Bikotekidearekin duten harremana izaten da beren bizitzaren oinarria, eta ez dute banantze bat onartzen.

Noiz hasten dira tratatu txarrak?

Gizonetzko batzuek harremanaren hasiera-hasieratik jotzen dute andregai. Beste kasu batzuetan, berriz, 20-30 urteko harremanaren ondoren hasten dira, 50 urterekin edo.

Behin jotzen duenak berriro jotzen al du?

Errazago egiten du. Tabu bat hausten da, nahiz eta gehienetan gizonetzko gehienak damutu egiten diren...

Terapia saioetan gizonetzkoek bakarrik parte hartzen dute ala bikotekideak ere joaten dira?

Ni gizonetzkoa bakarrik tratatzearen aldekoa naiz, gizonetzkoa bakarrik baita indarkeria erabiltzen duena. Berak bakarrik hartu du une jakin batean jotzeko era-

bakia. Nahiz eta emaztearen edo ingurunearen presioa sentitu, berak hartu du jotzeko erabakia. Nik beti adibide bera jartzen diet: laneko nagusiak doilorkeriaren bat egindakoan jo egiten al duzu? Ez. Hor kontrolatu egiten duzu zeure burua, ezta? Bada, orduan, zure emaztea ere ez duzu jo behar! Nagusiarekin kontrolatu bazara, emaztearekin ere bai. Eskuak ihes egin dizula esateak ez du zure jokaera justifikatzen. Norberak erabakitzen du non, noiz eta nori. Gizonetzkoak hori onartu arte, ez gara terapiaren bigarren fasera pasatzen. Gizonetzkoak onartu egin behar du arazo bat duela, eta ez dakiela nola konpondu. Biktima nola sentitzen den erakusten diet. Nahikoa da behin bakarrik jotzea harremana baldintzatzeko: emazteak beldurra izango du, senarra haserretzen zaion bakoitzean.

Gizonetzkoak beren kabuz etortzen al dira terapiara?

Ez, ez. Normalean emazteak epaitegian salaketa bat jarri izan duelako etortzen dira. Edota, emazteak udaleko gizarte zerbitzuetara jo duelako, esanez, senarrarekin jarraitu nahi duela, baina bakar-bakarrik terapia egiten badu. Ez dira etortzen borondate osoz, baina bikotekidea berreskuratu nahi izaten dute.

Sendatzen al dira?

Ni baikorra naiz. Elkarren arteko harremana oso kalte-tuta ez badago eta motibazioa handia bada, orduan posible da. Harremana hobetu egiten da. Baina aitortu behar da jende askok uzten duela terapia.

Zenbat denbora behar dute sendatzeko?

Faktore asko hartu behar dira kontuan: noiz hasi zen jotzen, zer motibazio duen, tratatu txarrak noraino iritsi diren, bikoteak elkarrekin jarraitzen duen... Sei hilabeteko tratamendua egin ohi dute normalean, eta, gero, jarraipena egiten zaie. Guztira, bi urteko kontua izan daiteke.





“Era guztietako laguntza ematen zaie emakumeei”

Tratu txarrak jasan dituen emakumezkoak sarritan ez du harremana bertan behera uzten, bizitzeko baliabide ekonomikorik ez duelako. Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat udaletan zerbitzu bereziak jarri dira, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak hartzeko eta tratatzeko. Bilboko Udalak iaz, esate baterako, 19 emakume hartu zituen babespean. Carmen Garcia Bilboko Udaleko zinegotzia da; haren ustez, emakumeei kostatzen zaie harremana uztea, etetea; beren bizitza osoa bikotekidearen inguruan eraikia dute, eta, gainera, seme-alabak ere tartean daude kasu batzuetan. Carmenek berak azalduko digu udalak nola hartzen dituen emakume horiek eta zer zerbitzu ematen dien.

Zer egin dezake tratu txarrak jasan dituen emakumezko batek?

Kontuan izan behar da emakume batek etxea utzi dezaakeela, nahiz eta udal-zerbitzuak itxita egon, gauean esate baterako. Lehendabizi, polizia-etxera joan behar du bai Ertzaintzara, bai udaltzainengana. Han salaketa bat ipini behar du, zer gertatu den kontatu, eta orduan ertzainek edo udaltzainek udaleko *Gizarte Alorreko Gizarte Larrialdietarako zerbitzura* deitzen dute. Zerbitzu horretan gau eta egun egoten da gizarte langile bat, eta deia jaso bezain laster joaten da polizia-etxera; orduantxe hasten da emakumeari laguntza ematen.

Zein da hurrengo pausoa?

Ospitalera eramaten dute emakumezkoa, mediku-azterketa bat egiteko. Izan ere, salaketarako behar-beharrezkoa da. Ondoren, Foru Aldundiaren ardurapeko aterpetxe batera eramaten dugu; ahalik eta denbora gutxien pasatzen du han. Aldi berean, udaleko *Emakumearen Zerbitzuko* gizarte langilearekin hitzordua izaten du, eta, hain zuzen ere, hortxe hasten da emakumeari babesa emateko prozesua. Bilbon, babesa emateko sei etxebizitza ditugu. Emakumeak gizarte langileari gertatutako guztia kontatu behar dio: seme-alabarik, baliabide ekonomikorik, lanik... duen. Etxebizitza horietan hartzeaz gainera, laguntza ematen zaie: baliabide ekonomikorik ez badute, gizarte larrialdietako laguntza ematen zaie; bestalde, babes psikologikoa eta aholkularitza juridikoa ere eskaintzen zaizkie.

Berdin lan egiten al da emakume guztiekin?

Kasu bakoitzaren jarraipena egiten da. Emakume bakoitzari heziketa-programa bat egokitzen zaio. Izan ere, emakume bakoitzak bere ezaugarriak ditu, eta, horren arabera, behar bereziak: lanik ez dutenei, esaterako, lana bilatzen laguntzen zaie eta jarraipen bat egiten, lan bat aurkitzen duten arte. Babes psikologikoa ematea oso garrantzitsua da, zeren emakume horiek deserrotze sozial handia bizi izan dute. Nire ustez, emakume horiek biktimak dira bi aldiz: alde batetik, eraso fisikoarengatik; eta, bestetik, erasotzaileek urruntzeko aginduak behar bezala betetzen ez

dituztelako. Mehatxupean bizi dira emakume asko eta asko: ezin diote telefono zenbakirik inori eman, umeak mehatxupean dituzte, bikotekideak ez du jakin behar non bizi diren... Urruntzeko agindu hori ez da batere eraginkorra, 500 metrokoa besterik ez da. Bestalde, bikotekidearekin batera izan dituzten lagun guztiengandik urrundu behar izaten dira tarte baterako.

Zenbat emakumek jotzen dute zerbitzu horietara?

2003.ean 19 emakumeri eman genien babesa; horietatik, 18 emakumek jaso zuten laguntza ekonomikoa; batek bakarrik zituen baliabide ekonomikoak. Aholkularitza juridikoa 22 emakumek eskatu eta jaso zuten. Azkenik, 14 emakume egon ziren psikologoarekin.

Zer gizarte-klasetan izaten dira tratu txar gehien?

Jendeak uste du gizarte-klase baxuenetan gertatzen direla gehien, baina hori ez da horrela. Tratu txarrak gizarte-klase guztietako emakumeek jasaten dituzte.

Babesa noiz arte ematen zaie?

Normalean hiru hilabetetik sei hilabetera arteko babesa izaten dute, lana aurkitu arte, orduan bakarrik aurki baitezakete leku bat bizitzeko. Hala ere, oso zaila da ordaintzeko moduko etxebizitza bat aurkitzea. Orain, emakume horiek alokairuan bizitzeko, etxebizitza batzuk eraikitzea aurreikusi dugu. Horrela, gutxienez bi urtez han egon ahal izango dira. Babeserako etxean sartzeko, behar-beharrezkoa da salaketa jartzea. Bestalde, etxe horiek sekretupean daude, gizonezkoek ezin dute jakin non dauden.

Emakume guztiek jaso al dezakete zerbitzu hau?

Bai, bai; emakume guztientzat da, baita etorkinentzat ere. Ez da paperik behar horretarako. Orain, zerbitzu honi buruzko informazioa eman nahi diegu Bilboko emakume etorkinei; asko eta asko legearen beldur dira eta ez dute guregana jotzen.

Nerea Pikabea
Kazetaria



Gramatikako zalantza batzuk

Bost urte igaro dira IVAPek *Duda-muda* kontsulta zerbitzua (<http://www.ivap.org/eusk/dudamuda/dudamuda.htm>) abian jarri zuenetik eta, geroztik, hamaika *duda-muda* jaso izan ditu. Hona jasotako zenbait:

Behar aditzarekin beti *ukan* jarri behar dugu, osagaia edozein dela ere? Alegia, *joan behar dut* edo *joan behar naiz*? Zein da zuzena eta zergatik?

- ▶ *Behar*-en osagaia *nor* tipokoa denean (*joan, etorri, jaiki, heldu...*) laguntzailea bietara (*da* edo *du*) ager daiteke, nahiz eta hedatuena *ukan* aditza erabiltzea izan. Beraz, bi hauek ondo daude:

Bazkaltzera joan beharko gara, ezta?

Bazkaltzera joan beharko dugu, ezta?

- ▶ *Behar*-en osagaia *nor-nork* tipokoa denean, laguntzailea **beti** izango da *du* erakoa; honela, beraz:

Gaur albisteak entzun beharko ditugu, ezta?

Nola idatzi behar da?: *Miren eta Koldoren artean* ala *Mirenen eta Koldoren artean*; *Gizarte eta Elizaren arazoa* da ala *Gizartearen eta Elizaren arazoa* da.

Biak daude ondo. Nolanahi ere, Euskaltzaindiak 111. arauan zehaztu zuen nola juntatu behar diren sintagmak *eta* junta-gailua erabilita. Hemen duzu arau horren laburpena:

- ▶ Kasu-marka bera duten osagarriak bi eratara elkar daitezke:

1. Osagarri bakoitzari kasu-marka jarrita:

ELAko ordezkari**ek** eta LABeko**ek** batzarra egin dute. Lekeitiot**ik**, Aulestit**ik** eta Mundakat**ik** omen datoz ikasle horiek.

2. Kasu-marka bakarrik azken osagarriari jarrita:

Gogoko ditu afari, dantza eta kanta zaharrak.

- ▶ Pertsona izenordainak elkartuz gero, kasu-marka beti jarri:

*Zu eta haiek egin beharko duzue.

Zuk eta haiek egin beharko duzue.

- ▶ Izenak singularrean badaude, hobe banan-banan denei kasu-marka jartzea:

Mendian eta hondartzan ibili gara asteburuan.

- ▶ Lotzen diren izenak oso hurbilekoak badira, kasu-marka amaieran jar daiteke, aurreko izena mugagabea utzita:

Bere emazte eta alabari galdetu zien.

- ▶ Ez da gramatikala mugatzailea daraman sintagma eta kasudun sintagma elkartzea:

*Etxea eta kalet**ik** entzun dugu zarata.

Etxet**ik** eta kalet**ik** entzun dugu zarata.

*Mutil **hau** eta neska **haiek** apurtu zuten kristala.

Mutil **honek** eta neska **haiek** apurtu zuten kristala.

Lagun arteko eztabaida luzea izan dugu. Esaldion artean bada zuzena denik?

- ***Gure herria hain da txikia, ez duela plazarik ere.***

- ***Gure herria hain da txikia, plazarik ere ez duela.***

- ***Gure herria hain da txikia ze, plazarik ere ez duela.***

Euskaltzaindiak dioenez, *-(e)la* atzizkiak ez du lekurik per-paus kontsekutiboetan (EGLU-V, 450. or.), nahiz eta ahozko hizkeran, bereziki, aski zabalduak egon (Hegoaldean, batez ere). Euskal tradizioan, *-(e)la* atzizkiak ez du inoiz balio hori izan. Hona euskarak erabili dituen bideak:



a) Menderakuntza:

- ▲ Gure herria hain da txikia / hain txikia da, **non** plazarik ere ez **bait(u)/(du)en**.
- ▲ Gure herria hain da txikia / hain txikia da, **ezen** plazarik ere ez **bait(u)/(du)en**.

Aurreko bi egitura horiek dira erabiliak. Nolanahi ere, hiru ohar egin behar ditugu: 1) perpaus nagusiko maila-hitza (*hain*), gehienetan, adjektiboari loturik agertzen zaigu (*hain txikia*); 2) *ezen* partikulak aldaera bat baino gehiago ditu (*eze, ze*); 3) perpausen ordena aldatzea bada ere, lehenengo, maila-hitza edo kuantifikazioa daraman perpausa ematen dugu, eta ondorioa gero.

b) Alborakuntza:

- ▲ Plazarik ere ez du gure herriak, hain da txikia.
- ▲ Gure herria hain da txikia / hain txikia da, **non/ezen** plazarik ere ez du.

Ikusten duzunez, lehenbiziko esaldiak ez du inolako lokailurik, eta alborakuntza biluzia da (koma besterik ez duzu bi perpausen artean). Horrelakoetan, bada, perpausen ordena aldatzen dugu sarritan: *hain da txikia*, bukaeran emanik dago. Batik bat, ahozkoan erabiltzen dira esaldi horiek, eta intonazio berezia izaten dute; horregatik aldatzen da ordena (maila-hitzak indar berezia hartzen du adizkiaren aurrean).

Bigarren esaldiak, berriz, lokailua (*non/ezen*) darama, baina ez du menderagailurik (*bait-/-(e)n*); hortaz, alborakuntzaren barruan sartu behar dugu, nahiz eta menderakuntzazko esaldien tankera izan.

Mikel etorriko denean bezalako egiturak okerrak al dira? Hau da, ekintza bat etorkizunean kokatzeko erabil dezakegu -ko denean?


Bai, okerrak dira. Berez, *-(e)nean* egiturak aldiberekotasuna adierazten du, hau da, denboraren ardatz hartuta, perpaus nagusiko ekintza eta menpekota batera gertatzen direla.

- *Mikel etorriko denean egingo dugu bilera.
- Mikel etortzen denean egingo dugu bilera.
- Mikel datorrenean egingo dugu bilera.

Ba dago bereizketarik hurrengo hauen artean?

- **Hobe dut etortzea.**
- **Hobe dut etorri.**
- **Hobe dut etorrira.**

Oraindik, behintzat, Euskaltzaindiak ez du batasunerako ezer erabaki honetaz. *Orotariko Euskal Hiztegi*a jo, eta han ez da esanahi bereizketaz konturik aipatzen; baina bai erabileraz, izan ere *hobe izan* horrek hartzen dituen osagarriak nolakoak diren agertzen da, eta horri begiratuko diogu. Hauexek izan daitezke osagarri:



- ▶ Baldintzazkoak: *Hobe dut garaiz etortzen banaiz.*
- ▶ Subjuntiboazkoak: *Hobe dut, beraz, utz dezadan.*
- ▶ *-tu*: *Hobe dut garaiz etorri.*
- ▶ *-t(z)ea*: *Hobe dut garaiz etortzea.*
- ▶ Iparraldean forma horiez gain *-rik* har dezake: *Hobeko duzue bertze bat harturik.*

Ikusten duzunez, zuk jarritako lehenengo biak ondo daude eta hirugarrena ez dago txarto, kontua da Hegoaldean ez dela erabili izan eta ez duela tradizioirik. Aukeran dituzu, beraz.

Nola erantzun galdera honi?

- **Zenbatean erosi duzu?**
- **Berrogei euroan/eurotan.**

Euskaltzaindiak forma hauexek onartzen ditu:

- ▶ Galdera egiteko:
 - Zenbatean (ez *zenbatetan) erosi duzu?
 - Zenbat eurotan/euroan erosi duzu?
- ▶ Erantzuteko:
 - 40 euroan/eurotan erosi dut.

Gisa berean: *3 euroan/eurotan dago ardoa; 100 eurora/eurotara iri da salneurria; 500 eurotik/eurotatik gora ekarri.*

HAEEko Administrazio Hizkeraren Atala

Baina zertan dabil itzultzailea, bada?

Itzultzaileak, Administraziokoa bertakoa zein kanpokoa izanda ere, sendagaiaren antzera, onura beste kalte ekar diezaioke erabiltzaileari. Beraz, halakoarengana jo orduko, komeni-komenigarri izango da gomendio batzuk gogoan ondo josirik izatea. Lehenik eta behin, itzultzaileak ez dira utzi behar umeek heldu ahal izateko moduan. Apurkor bezain kaltegarri gerta baitakizkioke itzultzaileak halako lagun arriskutsuak ondo zelan erabili ez dakienari!

Itzultzailea eta interpretea komunikazioaren profesionalak dira, hau da, hiztun elebiduna edo eleantza baino gehixeago dira: prestakuntza berezia izango dute komunikazio kontuetan, beraz, itzulgaia edo hitzaldia beste hizkuntza batean jartzeko agintzeaz batera, testua edo berbaldia zertarako eta norentzat den esatea ere noraezekoa izango da.

Hona hemen, beraz, itzultzaile-interpreteen gaineko uste oker batzuk eta horien aurkako txertoak. Oinarrian, Europako Batzordeko Itzulpen Zerbitzuak emandako aholku batzuk dautza:

“Eskura hiztegi onen bat edukita, edonork itzul lezake”

Gezur galanta! Hiztegia nahikoa izanez gero, ez litzateke egunero-egunero hainbeste itzulpen txar helduko gure begietara edo belarrietara. Nork ez du eskuartean erabili instrukzio eskuliburu ulertezinik?

“Urliak oso ondo menperatzen ditu hizkuntzak. Zertarako behar dugu itzultzailea?”

Eta zertarako gainerako langile, aditu eta ugazabak? Hizkuntza bat menderatzeak ez dakar, berez, itzultzen jakitea. Gainera, baliteke norberaren eguneroko hizkuntzan erredaktatzen oso iaioa ez izatea.

“Itzultzaileak atzerriko hizkuntzara itzul dezake haren hizkuntzara bezain ondo”

Horra hor zergatik sortzen den hainbeste aldrebeskeria, demontre! Guztiz elebiduna izanez gero, baliteke hala gertatzea, hau da, bi hizkuntzak berdin menderatzea ahoz zein idatziz. Bestela, ezta hurrik eman ere! Normalean, ama hizkuntzara edo elebidun moduan menderatzen dituenetara baino ez ditu bihurtuko testuak edo mintzaldiak.

“Ordenadoreek laster ordezkatuko dituzte itzultzaileak!”

Ez daukazu harturik! Horren beldurrik —edo itzarorik— ez izan! Ordenadoreak, oraindik, oso urrun dabilta adimen artifizialeatik: ez dira gauza hizkuntzaren anbiguotasun eta ñabardura guztiak ulertzeko. Jakina, informatikak itzultzen laguntzeko tresna bikainak asmatu ditu eta itzultzaileari teknikak eskaintzen dituen erraztasun guztiak jarri behar zaizkio eskura.

“Itzultzailea eta interpretea gauza bera dira”


Ale ederra bota duzu! Egia da bi lanbideok osagai komun ugari dituztela, baina interprete onak ez du zertan itzultzaile ona izanik eta itzultzaile onari sarri bai sarri jazotzen zaio interprete moduan txarto moldatzea.

“Hizkuntzak menderatzea aski da interprete izateko”

Pirinioak baizen handiko gezur mendi bat! Interpretazioak profesionaltasuna, lanbidean ondo jakiteko eskatzen du. Berbalduna halako oinarri-oinarrizko ideietatik harantzago badoa, interpreteak erabili beharko ditu inondik inora brastakoan, unean-unean, inprobisa ezin daitekeen lan teknikak.

“Halako hizkuntza ikasi badu, zergatik ez du horretara interpretatu gura?”

Eta zergatik bai? Interpreteak soilik interpreta dezake guztiz azpian duen hizkuntza batera (normalean, lehen hizkuntzara), interpretazioak oso gogo eragiketa delikatuak eskatu ez





“Interpretea interprete da. Zertarako behar dut konferentzi interpretea?”

Bai horixe, azken buruan, galtza zahar baterako inoiz ez da fidelako gona zaharren bat! Konferentzia garrantzizkoek prestakuntza berezia, unibertsarioa, duen interpretea beharko dute. Baiteste interprete guztiak horrelakoren jabe ez izatea.

“Dei iezaiozue itzultzaileari edo interpreteari edo dena delakoari... berdin dio!”

Barberurik ez dagoenean, al baitaria on! Itzultzaileak testu on eta fidelak erredaktatzea du lanbide. Interpreteak hiztunaren mezua eta asmoak helarazi behar dizkie entzuleei, ahoz eta modu ulergarrian. Txakur-katuak legez, biak pizti, baina zein bere alorrekoa! Itzultzailearengan ikusezintasuna da tasunik baliotsuena. Interpretea, aldiz, nabarmen-nabarmena da, ez ein dela ere interpretazio mota. Hiztunarekin identifikatu beharra du, ideiak eta usteak hark bezain irmo eta bete eman beharko ditu aditzera.

“Ezin duela itzulpena halako eguna arte amaitu? Alfer ahalena!”

Itsu bai itsua! Dokumentua erredaktatzen bi aste, hamaika neke eta beste horrenbeste kontu erabili ondoren, itzultzaileari arinetan itzultzeko eskatzen badiozu, dokumentuari zuk zeuk kenduko diozu garrantzia, itzultzaileari ganoraz itzultzeko aukera ukatzen diozunez gero.

“Interpreteak hiztunak irakurri beharrekoaren kopia eskatu duela? Ez ote du hizkuntza ulertzen, ba?”

Leitu behar duzun dokumentua ez diozula eman gura interpreteari? Zuretzat kalte, ia ezinezkoa delako irakurritakoa behar bezala interpretatzea testua begi aurrean eduki barik. Hau da, entzuleek ez dute behar bezala ulertuko zer adierazi gura duzun!

“Itzultzaileak dokumentu osagarriak edo itzulpen zaharrak eskatu dituela? Eta solaskide baten telefono zenbakia zalantzak argitzeko? Ez al daki ofizioan, ala?”

Beharko! Itzulpena behar legez egiteko, nahitaezkoa da bezeroak eskura dauzkan lagungarri mota guztiak itzultzaileari ematea.

“Itzultzaileak edo interpreteak edozein gai itzul edo interpreta dezake?”

Duenari ezin kendu eta ez duenari, ezin eman! Itzulpen mota asko dago: orokorra, teknikoa, zientifikoa, juridikoa, literarioa, ikus-entzunezkoak... Ospitalean legez, denak mediku, baina, nori berea!

Itzultzailearen bat behar izanez gero, inor ezagutzen ez baduzu, jo ezazu zeure erakundeko itzulpen zerbitzura edo itzultzaileen elkarteren batera, haixek esango dizutelako norekin eta zelan jarri harremanetan. Botikekin bezala, ez hartu beste bati agindutako sendabiderik adituren bati itaundu barik!

Beraz:

- ▶ Ez eskatu itzultzaileari bere lehen hizkuntza ez den beste batera itzultzeko!
- ▶ Eman iezaiozue itzultzaileari edo interpreteari eskura daukazun dokumentu osagarri guztiak.
- ▶ Beti adieraz iezaiozue itzulpena zertarako behar duzun edo zertan erabiliko duzun!
- ▶ Emaiozue behar besteko epea itzultzaileari, batez ere testu zailak izanez gero.
- ▶ Helaraz iezaiozue oharrak eta iruzkinak itzultzaileari, horrela hurrengo lanetan kontuan izango ditu eta.
- ▶ Itzulpen lanak ase ez bazaitu, esaiozue itzultzaileari edo interpreteari, atzera ere horrelakorik gerta ez dadin. Eta, jakina, pozak urtzen uzten bazaitu, ez geratu geroko geroan, esaiozue lehenbailehen!

Osterantzean, zalantzarik baduzu, ondo gogoan izan pasadizo hau:

Itzultzaileak 400 berbako itzulgaia jaso du.

Bezeroa: Zenbat denboratxo joko du itzulpenak?

Itzultzailea: Astebete inguru.

Bezeroa: Aste osoa 400 berba itzultzeko? Jainkoak sei egun baino ez zituen behar izan mundua egiteko!

Itzultzailea: Ederto, ikusi besterik ez duzu mundua zelan dagoen eta gero, bota iezaiezu begiratutxo bat nire itzulpen bikainei!

Karlos del Olmo
Itzultzailea

Abiadura Handiko Trena (AHT) Euskal Autonomia Erkidegoan. Beharrezkoa al da “Euskal Y”-a?

Abiadura Handiko Trena Euskal Herritik pasako dela dirudi, Espainiako Gobernuak onetsi baititu “Euskal Y”-aren lehenengo zortzi zatien proiektua eta lanak. Eusko Jaur-larritza pozarren agertu zen erabakiarekin, baina beste sektore eta alderdi batzuk ez zeuden konforme. Beharrezkoa ote da AHTa herritarrontzat? Zenbait talde, alderdi eta erakunde publikoko sei kide hautatu ditugu, honi buruz duten iritzia plazaratzeko.



Jose Ramon Beloki
Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako diputatua

Abiadura Handiko Trena beharrezkoa da, zalantzarik gabe, eta horrela ikusten dute Europako herrialde guztiek. Are gehiago, ezinbestekoa iruditzen zaigu eraikitzeko lanak ahalik eta azkarren hastea,

denbora jakin batean eta epe laburrean erabiltzeko moduan izan gaitzen. Eginda balego hobe. Inor gutxik izango luke damu. Azken batean, tren mota hori egiten ez badugu, Europako herrialde aurreratuenetatik oraindik eta urrunago geldituko gara.

“Euskal Y”-ari dagokionez, dagoen proiektu bakarra da. Serioa, asko landutakoa eta erakundeen zein gizarte arloko eragileen oniritzia eta babesa jaso duen proiektua da.

Horren adibide gisa, eta denboran gehiegi urrutiratu gabe, hor dugu iazko abenduaren 3an, Irunen, Dax-Gasteiz Abiadura Handiko Trenaren alde sinatutako adierazpena (Euskadi eta Akitaniako agintari gorenak buru zirela; instituzioetako, eta kultura, unibertsitate eta ekonomia arloetako 200 eragilerekin batera). Han adierazten zen bezala, proiektuak ondo betetzen ditu lehentasunezkoa izateko behar diren lau baldintzak: proiektua heldua da; mugaz gaindiko dimentsioa du; hazkundean eta berrikuntzan eragin zuzena du; eta ingurugiroari dagokionez, eragin positiboa izango du. Guk hori argi daukagu, eta borondate horren berri eman diegu Espainia eta Frantziako gobernuari eta Europako Batzordeari. Bide beretik, otsailaren 19an berriro elkartu ziren Akitaniako eta Euskadiko lehendakariak; garraio proiektuak kudeatzeko elkarte sortu zuten, eta nahia agertu zuten trena ahalik eta azkarren egiteko.

Igor Irigoyen
IU-EBko kidea



Euskal trenbide-sarearen moldaketa beharrezkoa da, daukaguna zaharkitua gelditu delako, eta gaizki erabiltzen dugulako. Ildo horretatik, dauden sareak zaharberritzeko diru-laguntzak ezinbestekoak direla uste dugu, eta baita “Euskal U”-aren proiektua martxan jartzea ere, merkantzia astunak errepideetatik atera eta trenean garraiatzeko.

Euskadik defizit handia dauka arlo honetan, ia ezinezkoa baita Bilbotik edo Gasteiztik Madrilera trenez joatea, edo Bizkaiko hiriburutik Donostiara, adibidez. Bestalde, errepideen eraikitze neurrigabea bultzatzen du gobernuak, kamioien bidea zabaldu nahian, eta neurri horrek auto-ilarak, istripuak eta atmosferaren kutsadura besterik ez dakar.

Ezker Batuan ez dugu “Euskal Y”-an sinesten. Ez da bideragarria, Europak ez baitu eraikitzeko dirurik emango. Euskadik ez dauka diru hori, eta Espainiak ez du inolako fondorik aurreikusi. “Y grekoa” oraindik bideragarria dela esaten duena gezurretan ari da.

Ezker Batuko kideak benetan pozten gara, azpiegitura hori ez baita jasagarria ingurugiroaren ikuspuntutik. Naturan oso eragin larria izango luke, diru-xahutze ikaragarria izango litzateke, eta ez luke euskal errepideen arazoa konponduko.

Horregatik, Ezker Batuak “Euskal U”-aren aldeko apustua egiten du, hainbat arrazoirengatik: gaur egungo azpiegitura gehienak aprobetxatuko lirateke, askoz merkeagoa izango litzateke, ingurugiroak kalte oso txikiak izango litzateke, eta kamioien ondorioz sortutako auto-ilarak konponduko litzateke.



Iñaki Gurtubai
Eusko Jaurlaritzako
Garraio eta
Herri Lana Saileko
zerbitzu-zuzendaria

Euskal Herriko garapenerako guztiz komenigarria da Abiadura Handiko Trena martxan jartzea. Izan ere, gaur egun daukagun trenbide-sareak bi mende ditu, eta ezinezkoa da herri modernoan izan eta garraio sistema zaharkitua edukitzea.

Ez dut uste “Euskal Y”-aren proiektuaren egokitasunaz eztabaidatu beharko genukeenik, hau ez baita ibilbiderik egokienari buruz aritzeko unea. Azpiegituraren aplikazioa erabaki behar da: AHTa egiten den edo ez, alegia. Hori da konturik garrantzitsuena. Bere garaian teknikoek, adituek eta politikariek aztertu zituzten aukeren artean “Y grekoa” izan zen egokiena, eta horixe aukeratu zuten.



Rodolfo
Saenz de Ugarte
Arabako Foru
Aldundiko Garraio eta
Herri Laneko diputatua

Abiadura Handiko Trena beharrezkoa dugu Euskadin. Are gehiago, ezinbestekoa dela esango nuke, Madril eta Europarekin komunikazio arin eta erraza ahalbidetzeko. Gaur egun, daukagun azpiegiturarekin, komunikazio hori ezinezkoa da. Gainera, AHTak Euskadiko hiru hiriburuak elkarrekin lotuko lituzke.

Bestalde, “Euskal Y”-a da AHTa Euskadin aplikatzeko daukagun modu bakarra. Madrilera eta Eusko Jaurlaritzak onetsita dagoen irtenbide bakarra da, eta momentu honetan ezin dugu beste irtenbide batzuk aztertzen hasi. Beste proiektu batzuk ere aztertuak izan ziren garai batean, eta atzera bota zituzten; beraz, “Euskal Y”-a dugu proiektu bideragarri bakarra.

ABIADURA HANDIKO TRENAREN AURKAKO ASANBLADA

Gure ustez, Abiadura Handiko Trena ez da beharrezkoa. Eredu “desarrollista” batean kokatzen da, eta jendeak ez du horren beharrik. Interes ekonomiko eta politiko handi batzuei erantzuten die soilik. Gainera, globalizazio kapitalistaren funtsezko tresna da, eta lurralde eredu metropolitanoa bultzatzen du. Metropolia handiak sortu nahi dituzte; guztia hiri handi bihurtu, baina prozesu urbanizatzaile hori ez da batere naturala.

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, oso nabaria da Euskal Herria metropoli handi bihurtu nahi dutela, eta horrek kalte ugari eragingo ditu ingurugiroan, gizartean eta abar. Eredu hori da garraioaren hazkunde jasangaitza ekartzen duena, pertsonen eta merkantzien garraioaren eskaera areagotzen baitu. Beraz, esan dezakegu Abiadura Handiko Trenak proiektu zehatz bati erantzuten diola.

Guk “Euskal Y”-aren proiektua eta hori bezalako azpiegitura handi guztiak geldiarazteko eskatzen dugu, prozesu eraldatzaile bat abian jartzeko. Guk ez dugu “Euskal Y”-rik nahi, ezta “Euskal U”-rik edo “Euskal H”-rik ere. Eredua da guk zalantzan jartzen duguna, eta mugak jarri behar zaizkiola uste dugu. Gure proposamena guztiz eraldatzailea da, eta jendearen parte hartzea eta alternatibak bultzatu behar direla uste dugu.

ESPAINIAKO GOBERNUKO SUSTAPEN MINISTERIOA

Trena XXI. mendeko garraibide garrantzitsuenetako bat izan dadin, eta hegazkinaren edo autoaren maila berean egon dadin lanean ari gara Espainiako Sustapen Ministerioan. Komunikabide moderno eta lehiakorra egin nahi dugu, eta horretarako sortu genuen *Tren Azpiegituren Inbertsio Programa 2000-2007*. Abiadura Handiko Trenak zeregin garrantzitsua dauka programa horretan, guretzat ezinbestekoa delako. AHTari esker, lau ordu baino gutxiago iraungo du Espainiako edozein hiriburutik Madrilerako bidaiak; eta Bartzelonatik edozein probintziatara joatekotan, bidaiak ez du inoiz sei ordu eta erdi baino gehiago iraungo.

“Euskal Y”-ari dagokionez, oso onuragarria izango da. Ez genuke ibilbidearen lehenengo zortzi zatien proiektua onetsiko horrela ez balitz. Gasteiz-Bilbo ibilbidea 27 minutuan egingo du AHTak; Gasteiz-Donostia ibilbidea, 34 minutuan, eta Bilbo-Donostia, azkenik, 38 minutuan. AHTari esker, gainera, gure trenbide-sarea eta Europakoa parekatuko ditugu zabaleran.

Ion Orzaiz Galarza
Kazetaria

Jazarpen psikologikoa lanean edo *Mobbing*-a:

DEFINIZIOA ETA MUGAK

Mobbing-a laneko arazo

Mobbing-ak, laneko jazarpen psikologikoak, sufrimendu larria eragiten die hura pairatzen duten pertsoneri, eta gertatzen den antolakundeetan gutxitu egiten du lehiakortasun potentziala. Jardunean diren langileetatik %12 bat dator baieztapen honekin: “lantokian, jazarpen psikologiko orokortuak gutxitu egiten du nabarmenki eraginkortasuna”.

Lan-munduan, honela definitzen dugu *mobbing*-a: langile batek beste batengandik edo batzuegandik hartzen duen tratatu txar jarraitua eta nahitakoa, hitzekoa edo moduzkoa, zeinetan lankide horrek/horiek krudelki jokutzen baitute langile horren aurka, haren suntsipen edo txikitze psikologikoa lortzearen eta hura antolakundetik botatzearren, eta, bota ere, prozedura legez kontrako edo ez-zilegien bidez, begirunezko edo gizalegezko tratuaren kontrako bidez eta langilearen duintasunaren aurkakoez.

Mobbing-aren helburua da biktima izutzea, kikiltzea, gutxitzea, makurtzea, ikaratzea, eta haren emozioetan eta adimenean higadura lortzea, edo hura antolakundetik egoz-tearren edo jazarleak berak erasotu, kontrolatu eta suntsitzeko izan ohi duen behar aseezina asetzearren; horretarako, jazarlea antolamendu-egoera jakin batek ematen dion aukeraz baliatzen da (berrantolatzea, kostuak gutxitzea, burokratizazioa, aldaketa handien garaiak eta abar...) bere joera psikopatikoei bide emateko”. (Piñuel 2001, 55.or.)

Mobbing-aren kontzeptuak badu oinarri etiko bat, lan-harremanaren osagai oinarrizko edo funtsezkoa den langilearen duintasunari zor zaion begiruneaz ari den aldetik: begirune-ezaz, hain zuzen ere.

Era askotako estrategiak erabiltzen dira biktimaren aurka, eta gehienetan nahastu egiten dira batzuk eta besteak, “tratamendu integral” batean bezala. Hona hemen estrategia horietako batzuk:

- Biktimari oihu eta garrasi egitea, edo hura azpiratu edo iraintzea, bakarrik dagoela edo beste pertsona batzuk aurrean direla.
- Helburu eta proiektuak ezartzea bete ezin diren epeen barruan egiteko, jakinaren gainean; edo epe horien barruan nabarmenki amaitu ezin daitezkeen lanak ematea.
- Erantzukizun-esparru garrantzitsuak kentzea, eta horien ordezkari eginkizun arrunt interesik gabeak eskaintzea, eta are eginkizunik bat ere ez ematea (“harik eta asper dadin arte”).

- Kasurik bat ere ez egitea edo baztertzea, eta hura aurrean dela berari ez eta beste bati bakarrik hitz egitea, izango ez balitz bezala (hutsaren pare hartuta) edo bulegoan edo bilkuretan egongo ez balitz bezala (“ikusezina balitz bezala”).
- Lanerako ezinbestekoa duen informazioa ezkatzea edo lan-eginkizunetan huts eginarazteko manipulazioa, eta ondoren zuhurtzirik eza edo hutsegite profesionalak leporatzea.
- Enpresan esamesa maltzurak edo iraingarriak zabaltea haren izen ona, irudia edo profesionaltasuna belzteko.
- Hark egindako ahalegina gutxiatea edo ez aintzat hartzea bat ere; lana ondo egin duela ez aitortuz edo haren lana aldiro-aldiro ebaluatzeari uko eginez.



- Haren lorpen profesionalak ez aintzat hartzea edo maltzurkeriaz beste pertsona batzuei edo lanarekin zerikusirik izan ez duten kontuei egotea, hala nola hala-beharrari, zoriari, merkatuaren egoerari eta abarri...
- Haren lana, ideiak, proposamenak, konponbideak eta abar etengabe kritikatzeko, irigarri utziz edo trufa eginez.
- Laneko eginkizunetan hark hartutako erabaki edo ekimen oro gogorki zigortzea hierarkiari zor zaion mendetasunari egindako huts larriaren moduan.
- Haren lanaz, ideiez edo emaitzez iseka egitea gainerako langileen aurrean.
- Beste lankide batzuek aipatutako horietan parte hartzea bultzatzea, limurtuz, hertsatuz edo aginteaz gehiegi baliatuz.

- Jazarria den pertsonaren pribatutasuna urratzea, haren gutunak atzitzea, telefonoan esku sartzea, haren agiriak, armairuak, tiraderak eta abar miatzea, eta lanerako ezinbesteko dituen gauzak maltzurkeriaz kenduz.

Lanean diharduten hiru langiletatik batek dio tratua txar psikologikoa (hitzezko edo moduzko tratua) pairatu izan dituela inoiz lan-bizialdian zehar. Lanean ari diren biztanleetatik %15 baino gehiagok (Estatu osoan 2,3 milioi langilek) dio azken 6 hilabeteotan astero pairatu izan dituela bortizkeria psikologikoa edo mobbing-a bere lanean; hala dio Alcalá Cisneros II Unibertsitatearen txostenak.

Cisneros azterlanek erakutsi dutenez –Estatuan mobbing-a pairatu duten langileen artean egin dira–, zenbait lanbidetan handiago da jazarriak izan diren pertsonen ehuneko hori; hona hemen lanbideen arteko hurrenkera, kasu gehien izaten duten lanbideetatik gutxien izaten dutenetara: funtzionarioen eta herri-administrazioetako langileen artean; lehen hezkuntzako, hezkuntza ertainetako edo unibertsitateko hezkuntzako langileen artean; osasun-arloko langileen artean (erizainen artean, batez ere); haurtzaindegietako eta haur-eskoletako zaintzaileen artean; ostalaritzako eta turismo langileen artean; hedabideetako langileen artean; irabazteko asmorik gabeko erakundeetako kideen artean edo ongintza- edo erlijio-erakunde eta -antolakundeetako langileen artean.

Mobbing-aren arloan nazioartean aditu direnak bat etorri ohi dira hau zehazterakoan: arazo honek langile bikainak direnei eragin ohi die sarri, onetsienei, sormen handiena dutenei, esanak bete zaleenei, hau da, erakundearen giza balibideetan onenei.


Orobat, erakundeari edo bezeroei kalte egin diezaieketen ekintza ez-zilegi edo etikaren aurkakoetan parte hartzeari uko egiten diotenei eragin ohi die. “Iruzurretan” parte hartu nahi ez izateak mobbing-a ekarri ohi du askotan parte hartu nahi ez duten horien kontra. Mobbing-a pairatzen duten langileetako batzuk “tolesgabeegiak” izan daitezke, edo “uste onegia” izan dezakete, eta kalte egiten saiatzen direnei hasiera-hasieratik aurre egiteko eragozpen izaten da hori. Bestetan, pertsona ahulena hautatu ohi dira biktimitzat.

Gizon nahiz emakume, orok pairatu ohi du mobbing-a; hala eta ere, jazarpen psikologikoa emakumeek pairatzen dute gizonak baino gehiago (%54 emakumeak, %46 gizonak). Mendekotasun edo bazterkeria handiagoa jasaten dutenez, emakume langileak babesgabeago egoten dira jazarpen psikologikoaren aurrean. Maiz gertatzen da mobbing-aren biktima emakumea izatea eta jazarleen taldean beste emakume bat aurkitzea.

Halaber, egia da mobbing-a pairatzen duten gizonak uzkurrago direla mobbing-a pairatu dutela aitortzeko orduan eta laguntza terapeutikoa eskatzeko orduan.

Jazarpen psikologikoa eragiten dituen kalteak

Gutxi gorabehera, jazarpen psikologikoa pairatu duten pertsonetatik erdiak-edo adierazten du kalte psikologikoen edo fisikoen aztarnak dituela jazarpenak eraginda. Alcalá Unibertsitatearen “Laneko bortizkeriaren” inguruko CISNEROS II barometroak (2002ko otsailekoa) erakusten duenez, lanean dabiltzan eta inkesta egin zaien biztanleen arteko %7k dio baduela arazo psikologikoren bat laneko jazarpenak eraginda.



Hala, mobbing-tzat jotzen diren jokaeretakoa bat edo gehiago sarri edo ohitura bezala pairatzen dutela diotenen artean, %52 baino gehiagok dio jazarpen psikologiko horren ondorio diren osasun-arazoak dituztela. Biktimari eragiten zaion kalte psikologikoa ez da txikia. Mobbing-a lanean eragiten den kaltetzat hartu behar da, epe ertainean patologia ugari eta ezagunak eragin ditzakeen kaltetzat, hain zuzen.

Hori dela-eta, mobbing-a ez da “gaixotasun berri bat”, baizik eta laneko arrisku psikosozial bat, dagoeneko ezagunak diren gaixotasunak eragin ditzakeena. Hauek dira maiz agertzen direnak: antsietatea, depresioa, izualdiak, trauma osteko estresaren sindromeak, somatizazioak eta buruaz beste egiteko arriskua.

Mobbing-a pairatzen duen biktimak galdu egiten du, apurka-apurka, bere buruaren uste ona edo konfiantza, eta horrek bere bizitzaren hainbat alderditan eragiten du. Estresa gehitzen doakio, sorgin-kate baten gisan, eta horrek higatu egiten du haren gorputza, estresa kroniko eta zehaztugabe bihurtzeraino, eta gaitz edo eritasun somatiko kroniko anitz eragiten dizkio horrek, are laneko baja hartu beharra ere azkenean. Era berean, emozioen eta nortasunaren nahasteak sortu ohi dira, eta horiek familia- eta gizarte-harremanei eragiten diete, gizarte- eta bikote-harremantara arazoak ekarriz.

Biktimaren lanaren kalitatean eta eraginkortasunean ere eragiten du, eta jazarleak arrazoi berriak aurkitzen ditu hor biktimari erasotzen jarraitzeko, eta merezi duen zigor bat delako irudia jendearen artean maltzurkeriaz indartzeko. Osasun-arazoen jatorria estres kronikoa, antsietatea eta larritasuna dira. Hori dela-eta, organismoa andeatuz joan ohi da, eta gaixotasunak agertu ohi dira, jazarpena pairatu duenari baja hartu beharra eragiten diotena, eta batzuetan are erietxean sartu beharra ere.

Antsietateak, pairatutako erasoek eta osasunaren andeatzeak osasunaren inguruko ideia obsesiboak eta errepikakorrak eragin ohi dizkio biktimari, hipokondriaren gisakoak batez ere. Hortik aurrera, jazarleak arrazoi berriak izango ditu eskura jazarriaren aurka, hala nola absentismoa, osasun txarra, produktibitate eskasa, nortasun hipokondriako edo obsesiboa eta abar. Biktima beldur izaten da lanpostua galduko ote duen, bota egingo dutelako edo osasun txarragatik edo laneko baja jarraituarengatik utzi egin beharko duelako, eta, horrela, antsietatea hazi egiten zaio eta trauma osteko estresaren ezaugarriak eta erreakzio somatikoak biziagotu egiten zaizkio.

Iñaki Piñuel y Zabala


Alcalá Unibertsitateko irakaslea

Liburu hauen egilea: *Cómo sobrevivir al acoso psicológico en el trabajo* (Santander, 2001, Sal Terrae) eta *Mobbing. Manual de Autoayuda*. (Madrid, 2003, Aguilar).




Diversidad y convivencia lingüística
 Iñaki Agirreazkuenaga
 Gipuzkoako Foru Aldundia
 Donostia, 2003
 422 or.

Bi urterik behin ematen den *Joaquín Elósegui* saria jaso du ikerketa eta saiakera liburu honek. Azterketa sakona aurkezten digu egileak: hizkuntza aniztasunaren inguruan zenbait kontzeptu argitu, eta hausnarketarako bideak zabaltzen dizkigu. Astia hartzen duenak aukera izango du honako gai hauek aztertzeko: hizkuntza arloko oinarritzko eskubideak, Europako Komunitateen Justizia Epaitegiak hizkuntza arloan duen jurisprudentzia, erakunde bakoitzak hizkuntza arloan dituen eskumenak, Herrialde eta gutxiengo hizkuntzen Europako gutuna, Espainiak berretsia, hizkuntza plangintzen bilakaera, gaur egungo egoera...




Euskarazko tradizioa eta molde berriak
 Gotzon Garate
 Gero/Mensajero
 Bilbo, 2003
 150 or.

Hankan *kalanbrea* egin zaizu? *Lesionatu* egin zara? Asko *tardatzen* duzu lokartzen? Bada, liburu honetan ez duzu aurkituko horiek denak konpontzeko edabe magikorik... baina esapide horiek eta gehiago euskaraz ganoraz esaten lagunduko dizu, zalantzarik gabe: *zainkorapilatua egin zait, min hartua naiz, berandu lokartu nintzen*... Euskara joria, indartsua, freskoa... erabili nahi duenarentzako apropos-aproposa da liburu hau. Izan ere, egileak baserritarren-gandik jaso ditu eguneroko bizitzarekin lotutako hainbat eta hainbat esamolde, euskararen berezko nortasunari eusten diotenak.




Decir o escribir lo esencial en pocas palabras. Hacer la síntesis
 Alain Benoit
 Deusto
 Bilbao, 2002
 230 or.

Lan arloko agiri gehienak itxura aldatzen ari dira; izan ere, gaur egun mezua jasotzen duen edonork (entzule zein irakurle izan) eskatu ez ezik exijitu ere egiten ditu mezu labur, argi eta zehatzak. Horrela, laburpenak komunikaziorako ezinbesteko tresna izaten dira gure artean, bai enpresa pribatuetan, bai erakunde publikoetan. Baina, ba al dakigu laburpen egokiak egiten? Gehienetan praktikak berak erakusten digu nondik nora jo, esperientzia izaten baita irakaslerik onena. Dena den, teknika horren inguruan zerbait gehiago ikasi nahi baduzu, liburu honetan aurkituko dituzu hainbat orientabide arlo profesionalean ahozko eta idatzizko laburpenak egiteko: laburpen-motak, egitura, ahozko laburpen baten atalak eta abar. Egileak garrantzia ematen dio ahozko laburpenari. Azken kapituluetan laburpen-testu batzuk egiteko jarraibideak dituzu: laburpen-oharra, akta, sumarioa...



Motivar para una formación eficaz
 Robert F. Mager
 Gestión 2000
 Barcelona, 2003
 144 or.

Aurretik ere gomendatu izan ditugu argialetxe horretako liburuak (Gogoan izan: *Claves para una comunicación eficaz*, *Aprenda a redactar informes*, *El poder de las presentaciones efectivas*). Eta aurrekoen ildo beretik doa oraingo hau ere; hau da, oso modu praktikoan azaltzen da nola landu motibazioa prestakuntza eraginkorra lortzeko. Egileak psikologia konduktista hartu du oinarri gaia aztertzeko: irakasleak landu egin behar ditu ikaslea erakartzeko balio izango duten aspektuak, erantzun egokiak izateko eta gelan ikasitakoak lanean isla izateko; horrela bada, garrantzi handikoak dira, esaterako, honako hauek: materialaren diseinua, komunikatzeko gaitasuna eta parte hartzaileekiko harremanak. Adibide ugariz aberasten ditu azalpenak.



Euskalkiak. Herriaren lekukoak
 Koldo Zuazo
 Elkarlanean
 Donostia, 2003
 233 or.

Euskalkien inguruan dakiguna gaurkotzen saiatu da egilea saio berri honetan. Baina, helburua ez da euskalkien aurkezpen zehatza egitea, baizik eta hizkuntza ahalik eta osoen erakustea. Hiru irizpide izan ditu kontuan ezaugarriak aukeratzeko orduan: lehenik, hedadura: eremu txikietan erabiltzen diren ezaugarriak alde batera utzita, eremu zabaletan betetzen direnak baino ez ditu hartu kontuan; bigarrenik, maiztasuna: hitz multzo handietan betetzen diren arauak; eta, hirugarrenik, emankortasuna: hau da, araua bizirik egotea, ez iharturik. Teknizismoak eta hizkuntzako ahots bereziak adierazteko zeinu fonetikoak albo batera utzi dituzenez, gaia gogoko duen edonork erraz irakurri eta ulertzeko moduko saioa da.

Manuel Aznar etxalartarra

Inor gutxik daki gaur, Euskal Herrian, Manuel Aznar nor izan zen. Are gehiago, inork Manuel Aznar gogoratzen badu, ez da, oro har, bere bizitzan izan zenagatik edo egin zuenagatik, ezpada bere biloba Jose Maria Aznar, Espainiako presidente ohia delako. Izan ere, horrela da: bere bilobetako bat denok ezagutzen dugun Jose Maria Aznar kopetilun/bibotedun buruzagi politiko eskumatar famatua da.

Garai batean, ordea, Manuel Aznar oso pertsona ezaguna izan zen gure artean. Abertzaleen munduan batik bat, ospe eta izen berezia lortu baitzuen Sabino Aranaren jarraitzaileen artean. Baina, ez gaitezen gehiegi aurreratu; jo dezagun hasierara.

Manuel Aznar Nafarroan jaio zen; Bortzirietan, hain zuzen; Etxalar herrian, zehatzago esateko. Frantzia eta Espainiako estatuak bereizten dituen mugaren ondo-ondoan. Bere sendiaren erro guztiak Nafarroan barrena sustraituta zeuden. Bere lau abizenak, haatik, euskaldun-euskaldunak ziren; euskaltasun gardenaren horietakoak: Aznar, Zubigarai, Gerendiain eta Iturria.

Etxean eta kalean giro euskalduna bizi zuelarrik, Manuelek euskara izan zuen ama hizkuntza. Bere aita, Benigno Aznar, Monrealen jaioa zen; inguru erdaldunduan, alegia. Baina gaztetan Etxalarrera aldatu, eta ez omen zuen arazo berezirik izan herri berriaren errealtate soziolinguistikoan murgiltzeko. Ama, berriz, euskaldun petoa zuen Manuelek. Eta herriko giroaren euskaltasunaz, Manuelek berak hitz egin zigun, argi eta garbi, oraindik gazte zela: *“Nire erriya antxe dago mendi aundi batzuen pian Naparru’ko azkeneko zokotxuan. Nere erritar geienak euskera uts-utsa darabilte. Eta aunitzetan erderaz egin bear izaiten badute lotsaz beterik eta arpegiya gorri-gorriturik antxe ibiltzen dira kinkillun-kankallun ludi ainako disparate barregarrijak botatzen”*.

Are gehiago, Manuelek bazuen etxean euskara berebizi maitatzeko arrazoirik. Bere osabak, amaren nebak, aipatzeko moduko maila literarioarekin landu zuen euskara. Etxalarreko erretorea izanik, euskaraz egiten zituen elizako predikuak. Eta idatzi ere, horietako batzuk, idatzirik utzi zizkigun, bere garaiko euskararen lekuko. Bereak dira, adibidez, lerro hauek: *“Lenago erran dudan bezala, becatu mortala eguiten dute, eben gurasuac despreciacen tuzten humiac; eta naiz izanagatic gurasuac pobriac, ignorantiac, moldacaizac, eta humiac aberatsac, yaquinsuac eta manera fiñetacuac, alas ere, biardire guratsuac ongui tratatu, errespetatu eta ereverenciatu. Ala eguiñ zuen Erromacu Santu Benedicto Amecagarrenac. Aita Santa au, guratsu pobre batzuen humia cen, eta egun batian yuan cizayon, bere ama visitacera; baño*

uneraco yaunci aci zioten, soñeco eder bat. Icusi zuenian bere semiac, soiñecua arequiñ, erran zuen etcela ura aren ama, eta despeitu zuen. Yuan cizayon bere soñeco pobriarequiñ, eta orduan erran zuen: ‘auxe da nere ama’, obsequatu zuen bere ama bezala. Una ejemplu ederra guciyentzat”.

Nafar euskalduna zen, bada, gure Manuel. Ez zuen horretan zalantzarik. *“Yo no me siento ‘vasco-navarro’ –esan zuen behin– sino vasco de Navarra”*.


Esperientzia horretatik abiatuta, abertzale egin zitzaigun Manuel. Bilboko Eusko Gaztedin bazkide zuen eta *Euzkadi* egunkari jeltzaleaz baliatuz, lan oparoa egin zuen abertzale-tasunaren ideiak zabaltzen: *“Guk –idatzi zuen halako batean– Euzkeldun guziyen indarrak batutzia biar dugu. Bertzerik ez dugu nai: Bizkaitar, Gipuzkoar, Arabar, Napartar, Lapurdi eta Zuberotar guziyek anaitu eta bost bota geren aldetik atzerritarren agintza. Gure erriya guretzat. Euskeraz mintzo diren erri guziyek euzkeldunentzat. Bakar-bakarrik eta oso-osorik”*.

Idazle trebearen moduak zituenez –kazetari-tzarako egoki-egokiak, noski– *Euzkadi* egunkaririk Madrilgo beste egunkari hedatuago batera deitu zioten. Zirt eta zart, proposamena hartu eta Estatuko hiriburura joan zitzaigun Manuel bitsik galdu gabe. Geroztik, arian-arian, bere abertzale-pentsaerak ahazten joan zitzaizkion. Espainiar nazionalista sutua egin zen eta, gerrate zibilaren ostean, frankista amorratua. Inon frankozale petorik izan bada, Manuel Aznar ez da, horretan, beste inor baino gutxiago izan. Franco goraiputa duten propagandisten artean goreneko mailan jarri baitzen. Kazetari ona zen, zalantzarik gabe, eta bere bertute eta indar guztiak, Caudillo-a aingeruen buruan jartzeko erabili zituen. Eta


Generalísimo-ak, jakina, ondo ordaindu zion bere pairamena. Hainbat lekutan enbaxadore izendatu eta kargu eta aipamen ofizial ugariz jantzi zuen.

Gaur, bere bilobak abertzaletasunarekiko agertzen duen ezinikusiak kontrakoa pentsarazten badu ere, bere aitona Manuel, garai batean behintzat, abertzalea izan zen. Abertzale zintzoa eta sutua. Handinahiak bakarrik eraman zuen abertzaletasuna bazterrean utzi eta Espainiar nazionalismorik ankerrena besarkatzera. Eta harrez gero, ez dira gutxi bide bera jarraitu dutenak. Gaur-gaurkoz, bide emankorra dela dirudi. Lehen eta orain, abertzaletasunaren kontra egitea, giltza egokia dela dirudi Madrilan ate asko eta asko zabaltzeko.

Josu Erkoreka
EAJko parlamentaria



Hitz gurutzatuak



LUMA

EZKER ESKUIN

1. Zuhaitz mota. 2. Bizkaieraz, iratzea, garoa. Nahastura trinko. 3. Emea gura-soekiko. Errepikatuz, loa eragiten duen intsektua. 4. Helioren sinbolo kimikoa. Zerriak. 5. Bokala. Dardara. Oxigenoaren sinbolo kimikoa. 6. Lehoien harrobia. Ez eme. 7. Edo. Amaren ama. 8. Nire. Bihi. 9. Mendiko atea.

GOITIK BEHERA

1. Ahalmena. 2. Bilo. Hitz, solas. 3. Modua. Egona. 4. Ziraldoka. Interjekzioa. 5. Potasioaren sinbolo kimikoa. Gipuzkoako herria. Bokala. 6. Jupiterren satelitea. Pluralean, antzerki mota. 7. Zuhaitz mota. Burdino-la. 8. Nafarroako urtegia. Emakume izena. 9. Arabako herria.

Letra zopa

A	Z	N	T	E	H	A	R	E	T	U	T
I	E	D	I	M	I	R	N	A	L	D	O
A	U	Ñ	R	R	E	S	K	U	O	Z	I
K	Z	O	U	T	A	B	U	N	R	I	A
E	I	Ñ	B	I	L	B	O	T	U	I	K
B	E	N	Z	K	I	S	A	L	T	Ñ	A
A	T	A	E	S	T	E	M	I	E	E	R
U	S	L	K	I	A	I	D	B	O	I	D
B	A	R	A	K	A	L	D	O	R	N	U
U	G	O	R	K	Ñ	U	K	I	A	R	A

LUMA

Aurki itzazu letra zopa honetan Euskal Herriko zortzi hiriren izenak. Hitzak ezker eskuin, goitik behera eta diagonalean azalduko zaizkizu.

Euskararen inguruko zenbait telefono

- AEK: 94/424 17 10
- Argia: 943/37 15 45
- Berria: 943/30 40 30
- EIZIE: 943/27 71 11
- Euskal Herrian Euskaraz: 943/ 44 56 65
- Euskal Irrati Telebista (EITB): 94/ 603 10 00
- Euskal Kulturaren Erakundea: 00-335-59 93 25 25
- Euskaltzaindia: 94/415 81 55
- HABE: 943/02 26 00
- Helduen Euskalduntzerako Euskaltegia (HEI): 948/17 76 70-54
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP): 945/01 76 00
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza: 945/01 81 10
- Ikas eta Ari (IKA): 945/28 89 22-44
- IRALE: 945/27 44 00
- Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala (IZO): 945/01 76 56. FAX: 945/01 76 03
- Kultura Saila: 945/01 94 64
- NAPIko Euskaltegia: 848/42 33 19-51
- NAPIko Euskara eta Hizkuntz Komunitarioak Zerbitzua: 848/42 33 49-51
- Udal Euskaltegiak: 94/440 62 17 943/80 52 54
- UZEI: 943/47 33 77

Soluzioak

Bilbo, Gasteiz, Iruña, Donostia, Baiona, Barakaldo, Iruñ, Tuera.

Letra zopa

9. Ekora.
Arama. A. 6. Ito. Dramak. 7. Artea. Ola. 8. Eza. Ane.

Goitik behera:
1. Ahala. 2. Ite. 3. Era. Iana. 4. Zabuka. 5. K.

9. Ataka.
Ikara. O. 6. Lezama. Ar. 7. Ala. Amona. 8. Ene. Ale.

Ezker eskuin:
1. Ezka. 2. Iru. Ore. 3. Ahaba. Tse. 4. He. Urdeak. 5. A.

Hitz gurutzatuak